



**OT-010/20-PTP-MEM Debagoieneko Eremu Funtzionala**

**ARRASATE-BERGARAKO (DEBAGOIENEKO) LURRALDE PLAN PARTZIALA  
JARRAIKEN-MEMORIA  
MEMORIA DE SEGUIMIENTO  
ARRASATE-BERGARAKO LURRALDE PLAN PARTZIALA (DEBAGOIENA)**

*Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza*  
Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana

*Vitoria-Gasteizen, 2021eko urtarrila*  
Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrila

## AURKIBIDEA

### 0. ATARIKO GOGOETAK

---

- 0.1. Jarraipen-memoriaren xedea
- 0.2. Aurreko jarraipen-memoria
- 0.3. LPPren ondorengo lurralde-plangintza eta hirigintzako eta sektoreko legedia.
- 0.4. Udal plangintza LPPren lurralde-eredura eta 2/2006 Legea egokitzea

### I. LURRALDE EREDUA. LPP-REN OINARRIZKO PROPOSAMENAK

---

#### 1. INGURUNE FISIKO ETA AZPIEGITURA BERDEA

- 1.1. LPPren zehaztapenak
  - 1.1.1. Lurraldearen kategorizazioa
  - 1.1.2. Espazio babestuen eta Batasuneko Garrantzizko Lekuen (BGL) antolamendu-politika
- 1.2. LPP eta LAG bat etortzea
- 1.3. LPP LPSein edo beste plangintza sektorial batekin integratzea

#### 2. LANDA HABITATA

#### 3. HIRI HABITATA

- 3.1. LPPren lurralde-eredua
- 3.2. LAG. Gidalerroak eraldatze-ardatzen arloan
- 3.3. Bizitegi-lurzorua
  - 3.3.1. Bizitegi Kuantifikazioa, eta UDALPLANarekin alderatzea
  - 3.3.2. Udal plangintza LPPren lurralde-eredura egokitzea
  - 3.3.3. LAG. Bizitegi-kuantifikazioa: LPPko eta LAGetako aurreikuspenak alderatzea
  - 3.3.4. Bizitegi-ereduaren eta -kuantifikazioaren ondorioak
- 3.4. Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua
  - 3.4.1. LPPren lurralde-eredua eta kuantifikazioa
  - 3.4.2. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-erkaintzaren kuantifikazioa. LPPren zehaztapenen gauzatze-maila. UDALPLANarekin alderatzea
  - 3.4.3. Udal plangintza LPPren lurralde-eredura egokitzea
  - 3.4.4. Jarduera ekonomikoen arloko ondorioak
- 3.5. LAG. Hiri-berroneratzea
- 3.6. LAG. Hiri Hazkundearen Perimetra

#### 4. PAISAIA, KULTUR- ETA NATURA-ONDAREA, ETA BALIABIDE TURISTIKOAK

- 4.1. Paisaia.
  - 4.1.1. LPPk proposatutako eredua
  - 4.1.2. LAG eta LPP
- 4.2. Kultur ondarea
  - 4.2.1. LPPk proposatutako eredua
  - 4.2.2. LAG eta LPP
- 4.3. Natura Ondarea.
  - 4.3.1. LPPk proposatutako eredua
  - 4.3.2. LAG eta LPP
- 4.4. Baliabide Turistikoak
  - 4.4.1. LPPk proposatutako eredua
  - 4.4.2. LAG eta LPP

#### 5. BALIABIDEEN KUDEAKETA JASANGARRIA

- 5.1. Ura
  - 5.1.1. LPPk proposatutako eredua
  - 5.1.2. Uholde-arriskuaren kudeaketa. LPS, Ibaiak eta Errekak
  - 5.1.3. Hornidura eta saneamendua
- 5.2. Energia
  - 5.2.1. LPPk proposatutako eredua. Haize-energia. LPS

- 5.2.2. LAG Energia
- 5.3. Ekonomia zirkularra
  - 5.3.1. Hondakinen kudeaketa
  - 5.3.2. Lurzorua baliabide gisa

## **6. MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA**

- 6.1. Mugikortasun multimodala
  - 6.1.1. LPPren zehaztapenak
  - 6.1.2. LAG eta LPP
- 6.2. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
  - 6.2.1. LPPren zehaztapenak.
  - 6.2.2. Lurralde-plangintza sektoriala (EAE, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia).
  - 6.2.3. LAG eta LPP
- 6.3. Bide-mugikortasuna
  - 6.3.1. LPPren zehaztapenak
  - 6.3.2. Lurralde-antolamendu sektoriala (LPS, Arabako Errepideen Plan Integrala eta abar)
  - 6.3.3. LAG eta LPP
- 6.4. Trenbide-, portu- eta aireportu-mugikortasuna eta -logistika
  - 6.4.1. LPPren zehaztapenak.
  - 6.4.2. Lurralde-antolamendu sektoriala (EAEko trenbide-sare berria)
  - 6.4.2. LAG eta LPP

## **7. EKIPAMENDUAK**

- 7.1. LPPren zehaztapenak
- 7.2. Ekipamenduak garatzeko politika sektoriala

## **8. ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOAK**

- 8.1. LPPren zehaztapenak. Esku-hartze estrategikoak
- 8.2. Proposamenen garapen maila

## **9.- ZEHARKAKO GAIAK**

## **II.- ONDORIOAK**

---

- A) Ondorio orokorrak
- B) Ondorio partikularrak

## **I. Eranskina.- LURRALDE- ETA HIRIGINTZA- JASANGARRITASUNEN ADIERAZLEAK**

---

- A.1. Lurralde-eredua. Lurzoruaren kalifikazioa.
- A.2. Biztanleria-dentsitatea (orokorra eta hirikoa).
- A.3. Hirigintza-eredua
- A.4. Bizitegi-garapena. Plangintzan aurreikusitako etxebizitzak.
- A.5. Etxebizitza-dentsitatea.
- A.6. Lurzoruaren artifizializazio/kalifikazioaren bilakaera.

## **II. eranskina. PLANGINTZA. UDALPLAN 2019**

---

## 0. ATARIKO GOGOETAK

### 0.1. Jarraipen-memoriaren xedea

Arrasate-Bergarako (Debagoiena) Eredu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala apirilaren 12ko 87/2005 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko (EHAA, 05-06-06; hutsen zuzenketa EHAA, 2005-07-13).

Jarraipen-memoria honen xedea da LPPren antolamendu-arauetako 3. artikuluko 3. puntua betetzea. Hona hemen zer dioten: *«Halaber, lau urtetik behin, Eusko Jaurlaritzako Sailek eta lurraldearen antolaketaren eskumena duten foru-departamentuek memoria bat egingo dute, non azalduko baita noraino bete diren planen xedapenak eta, behar izanez gero, identifikatzen diren desbideratzeak leuntzeko edo zuzentzeko behar diren neurrien proposamenak. Memoria hori EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorriko zaio, batzordeak haren berri izan dezan».*

Memoria hau, egiten den bigarrena, EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez) behin betiko onartu ondoren idatzita dago, eta LPPn jasotako zehaztapenak eta horien garapen-maila aztertzen ditu, 2019ko LAGEkin alderatzearen bitartez. Administrazioek garatu dituzten eta Debagoieneko Eredu Funtzionalaren esparruari eragiten dioten politika sektorialak ere aztertzen ditu.

### 0.2. Aurreko jarraipen-memoria

2013. urtean zehar, Eredu Funtzionalako LPPren jarraipen-memoria bat idatzi zen, esandako lurralde-plan partzialeko zehaztapenen garapen maila eta lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnena zenbateraino bete zen aztertzeko. Debabarreneko, Laudioko (Aiara), Araba erdialdeko eta Guardiako (Arabako Errioxa) Eredu Funtzionalako LPPen jarraipen-memoriekin batera egin zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko osoko bilkuran eman zen memoria horien berri eta nola bidali zituzten foru-aldundietara, erakunde horiek beren ekarpenak egin zituzten. Gerora, eraginpeko udaletara ere igorri ziren eta IREKIA atarian eta web orrian argitaratu ziren. Azkenik, eta beste ekarpenik jaso ez zenez, EAELABen 2014ko urriaren 13ko osoko bilkuran onartutzat eman ziren.

Lehen memoria horretan honako ondorio hauek atera ziren:

## II. ONDORIOAK

### 1.- INGURUNE FISIKOA

- Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu ostean behin betiko onartutako Udal Plangintzetan, LPPn zehaztutako Lurzoru Urbanizazineko Babes Bereziko Zonak jasotzen dira. Hala ere, udalerrien erdiek baino gehiagok, Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate-Mondragón eta Elgeta, LPPaz aurretiko plangintza dute eta, beraz, ez datoz bat LPPren Ingurune Fisikoaren antolamendu-kategoriekin.
- Espazio Babestuak eta Batasuneko Garrantzizko Lekuak (BGL) izendatzeko politikari dagokionez, koherentea izan da LPPren proposamenekin. Aurrera egin da Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren izendapenean eta dagokion NBAParen onarpenean, nahiz eta oraindik gauzatu beharreko proposamenak geratzen diren, Udalatz eremua, esate baterako.

### 2.- AZPIEGITURAK

- **Errepideak**  
LPPn jasotako proposamenak bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorrearekin eta Gipuzkoako Errepideen Planekin. LPPren proposamenetatik, Eibar-Gasteiz autobidea, Zubillagako saihesbidea, Oñatiko saihesbidea, Olandixoko tunela eta Elgetako lehen saihesbidea gauzatu dira. Une honetan, Beasain-Durango autobidea egiten ari dira, honako zati hauetan: Zumarraga-Bergara, Bergarako saihesbidea (gauzatua), San Prudentzio (gauzatua), Epeleko saihesbidea (gauzatua, baina Bizkairantz jarraipenik ez duena, Kanpazar-Elorrio zatia, eremu funtzionaletik kanpo egonik, ez delako egikaritu eta errepide zaharretik egiten da lotura). Hala ere, oraindik ez dira lanak hasi Oñatiko ekialdeko saihesbidean (Berezo-Olabarrieta), Bergara-Elgeta zatiaren hobekuntzan eta Elgetako bigarren saihesbidean.
- **Trenbidea eta tranbia**  
LPPn jasotako proposamenak bat datoz trenbide-sareari buruzko LPSren proposamenekin. Debagoieneko tranbia ez da garatu. EAEko trenbide-sare berriari dagokionez, gaur egun, linea egikaritzen ari da, eremu funtzionaletik igaro ahala.
- **Garraioko azpiegiturak.**



Proposamenetako bat bera ere ez da garatu (Elorregiko tren-garraiorako eremu logistikoa eta geltoki intermodala eta bide-garraiorako eremu bat Elkoromuño-Ipiñarrin).

- **Hiriarteko ibilbide bereziak (zirkuituak oinezkoentzat eta bidegorriak)**  
LPPren bidegorri-trazaduren proposamenak bat datoz Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSrekin. LPP onartu zenetik, aurrerapen handiak egin dira Deba bailara eta haren adarrak lotzeko, bai eta LPP beraren beste proposamen batzuetan ere, hala nola Aretxabaleta-Urkulu ibilbidea; hala ere, oraindik geratzen dira gauzatu gabeko proposamenak.
- **Obra hidraulikoak**  
Epeleko HUA egikaritu da eta Mekolaldekoa amaitzen ari da. Hala ere, Urkuluko egungo urtegiaren hedapena eta LPPk etorkizunerako planteatzen zuen Olateko presaren (Oñati) okupazio-erreserba ez dira garatu.
- **Hondakinen tratamendua**  
Lurralde Plan Partzialean jasotako proposamenak bat datoz Gipuzkoako Hiri Hondakinen Lurralde Plan Sektorialarekin. Bertan, konpostat egiteko instalazioa bat eta transferentziagune bat aurreikusten dira. Bi azpiegiturak Epeleko hondakin geldoen zabortearen alboko lursail batean daude kokatuta.
- **Haize-parkea**  
Elgea-Urkilla mendilerroko haize-parkea jada egikarituta dago.

### 3.- HIRI KOKAGUNEAK

#### Bizitegitarako lurzorua

- Lurralde-ereduari dagokionez, esan behar da LPPk bizitegitarako garapen berriko lehentasunezko eremu gisa definitutako lurzoruak udal-plangintzetan jasota daudela, neurri batean, eta oraindik geratzen dela udal plangintzan sartu gabe dagoen lurzoru erabilgarria, garatu ahal izateko.

Hala ere, LPPk proposatutako eta udal plangintzan jaso gabe geratutako lurzoruen artean, badira Antzuolan, Bergaran eta Aretxabaletan malda handietan dauden zenbait lurzoru, garatzeko zailtasunak izan ditzaketenak. Bestalde, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko udalerrietan lurzoru gutxi dago kalifikatu gabe, nahiz eta LPPk udalerri horietarako erreserbatutako lurzoru kantitatea ere txikiagoa izan. Alderdi hori kontuan hartu baitzuen LPPk Oñatiko eta Bergaraldeko azpieskualdeetan bizitegi-ezarpenak lehenetsi zituenean, Leintz bailaren kaltetan, azken hori asetuta dagoelako, hain zuzen.

- LPPk aurreikusitako etxebizitza-urkilatik (4.909 - 7.152) 3.927 etxebizitza garatu dira 2005-2013 aldian, eta horietatik 1.641 babes publikoko araubideren baten pean daude. Bestalde, LAGen aldaketak 3.606 eta 5.150 etxebizitza arteko bizitegi-edukiera ezartzen du 2010-2017 aldirako, eremu funtzional osoa kontuan hartuta.

UDALPLAN 2013ko datuen arabera, bizitegi-edukiera 4.499 etxebizitzakoa da, LPPren eta LAGen aldaketako aurreikuspenekin bat etorririk. 4.499 etxebizitza horietatik 1.573 Bergaraldeari dagozkie; 588 etxebizitza Oñatiri, eta gainerako 2.338 etxebizitzak Leintz bailarari.

- Adierazi behar da, bestalde, bizitegi-erabilera berrietarako LPPk proposatutako industria-eremuen birmoldaketak ia guztiz gauzatu daudela jada Arrasateko Cerrajera-Zabalgunen. Halaber, udal plangintzetan bizitegi-erabilera berrirako jasota daude ondoren adierazten diren eremuok: Hilaturas (Antzuola), Kotoi-fabrika (Bergara), Zerrategia (Aretxabaleta) eta Santa Marina (Eskoriatza), baina industria-eremu gisa mantentzen dira Lizarragako etorbidea-Elai (Antzuola), Berraondokua (Elgeta) eta Beroa (Aretxabaleta).

#### Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua

- LPPk jarduera ekonomikoak garatzeko ezarritako lurzoru gehienak, bestalde, udal plangintzan jasota daude; eta horietako batzuk, gainera, garatu egin dira: Garaia berrikuntza-poloa, Garagartza eta Zabaleta-Garratza Arrasaten, San Juanen zati bat Bergaran eta Esteibar Eskoriatzan. Hala ere, horietako beste batzuk ez daude plangintzan jasota: Deskarga (Antzuola), Elkoromuño-Ipiñari (Bergara), Arlaban (Leintz-Gatzaga), Munazategi-Etxehaundiren zati bat eta Garagartza-Berezao (Oñati bailara). Guztira 115 ha geratuko lirake, etorkizunerako erreserba gisa. Aipatu behar da Deskarga, Zumarraga-Bergara zatia eta, zehazki, Deskargako tunela, egitearen mende egongo litzatekeela, eta Zaara-Monzon, berriz, Kanpazarreko tunela egitearen mende, gauzatu gabeko bide-azpiegiturak baitira biak.

2005-2013 aldian, 74,92 ha garatu dira LPPk jarduera ekonomikoetarako lurzoru berri gisa proposatutako 246 ha berrietatik. Horregatik guztiagatik, kalkulatzeko da Debagoieneko eremu funtzional osoak nahikoa lurzoru kalifikatu baduela datozen 10 urteetan (LPPren indarraldia amaitu arte, alegia) sortzea espero den eskaerari aurre egiteko.

- Eskuragarri dauden orto-argazkietan eta industrialdeetara egindako bisitetan ikusi da gehienak indarrean daudela eta badagoela jarduera. Hala ere, etorri zaigun krisialdi ekonomikoaren ondorioz, baliteke enpresa-ekimen guztiak betetzera ez iristea, eta gerta liteke jada eraiki eta urbanizatutako zenbait industria-sektore jarduerarik gabe geratzea; beraz, arazoari irtenbidea emateko hainbat norabide har daitezke:  
Hutsik dauden pabiloiak jardueraz hornitzea, jada egindako inbertsioak optimizatzeko xedez.
  - Industrialdeen diseinua zaintzea, hainbat alturatako pabiloiekin eta maila desberdinetako sarbideekin.
  - Erabilera mistoak bultzatzea, hiriguneen bizitegi-erabilerekin bateragarriak diren jarduerak galaraztea saihestearen bidez.
  - Industrialde zaharkituak birgaitzea.



#### 4.- EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK

##### Eskualdeko ekipamenduak

- o Ekipamenduen arloan egin diren jarduketa aipagarrienak honako hauek izan dira: Mondragon Unibertsitatea handitzea, Garaian eta Oñatin zentro berriak irekitzearen bidez, Arantzazuko Kultur Zentroa, Arrikrutzeko haitzuloetan egindako egokitzapen-lanak, Eskualdeko Kirol Gunea (estadioa, futbol-zelaia Musakolako instalazioen ondoan, kiroldegia eta igerilekua), eta Dorletako gatzaren Ekomuseoa handitzea.
- o LPPk egindako proposamen asko jada gauzatuta daude, baina beste zenbait ez dira egikaritu, hala nola Oñatiko golf-zelaia, Bergarako Errege Mintegiaren eraikina Zientzia Museo eta UNEDen egoitza gisa birkalifikatzea, Elgetako Mendiari buruzko euskal museo/interpretazio-zentroa, edota Elorregiko turismo-harrera, -informazio eta -zerbitzuetarako zentroa.

##### Espazio libreak

- o LPPk definitutako eskualdeko espazio libreak (atsedenlekuak) haren ondoren egindako plangintza guztietan jasota daude.

#### 0.3. LPP indarrean jarri ostean onartutako eta lurraldearen antolamenduan zuzeneko eragina duten lurralde-plangintza eta hirigintzako zein sektore arloko legeria

Debagoieneko LPP 2005ean onartu zen behin betiko (2005eko apirilaren 12a; 2005-06-06ko EHAA), eta ez du aldaketarik izan geroztik. Lurralde-plangintzari dagokionez, hurrengo dokumentu hauek onartu dira (kronologia-hurrenkeran):

- Gipuzkoako hiri-hondakinak kudeatzeko azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala, uztailaren 21eko 024/2009 Foru Dekretuaren bidez behin betiko onartua (GAO 2009-08-06), eta apirilaren 10eko 9/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatua (GAO 2018-04-13).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen LPSren aldaketa, urriaren 30eko 231/2012 Dekretuaren bidez behin betiko onartua (EHAA 2012-11-14).
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala, ekainaren 10eko 2/2003 Foru Arauak behin betiko onartu (GAO 2013-10-10) eta ekainaren 30eko 6/2014 Foru Arauak aldatu zuena (GAO 2014-07-03).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSren aldaketa –Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeak–, zeina azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren bidez onartu baitzen behin betiko (EHAA 2013-12-12 eta 2014-01-27).
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala, irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez behin betiko onartua (EHAA 2014-10-17).
- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. Uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onartu ziren behin betiko (EHAA 2019-09-24).
- 63/2020 Dekretua, maiatzaren 19koa, zeinaren bidez onartzen baita 2017-2028 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra (EHAA 2020-05-25).

Honako hauek dira LPPn araututako arloetan eragina duten eta esandako LPP hori behin betiko onartu zenez geroztik onetsi diren izaera orokorreko edo sektorialeko xedapen nagusirik garrantzitsuenak:

- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoarena.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 10/2019 Legea, ekainaren 27koa, Establezimendu komertzial handien lurralde-antolamenduari buruzkoa.
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.
- 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Kantauri mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segura eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko demarkazio hidrografikoen plan hidrologikoen berrikuspena onartzen duena.

Azkenik, LPP behin betiko onartu zenez geroztik eremu funtzionalean eragina duten hurrengo Kontserbazio Bereziko Zonak izendatu dira:

- 24/2016 DEKRETUA, otsailaren 16koa, Urkiola (ES2130009) Kontserbazio Bereziko Zona izendatu, eta hura kontserbatzeko neurriak ezartzeko dena.

- 120/2015 DEKRETUA, ekainaren 30ekoa, Zadorraren urtegi-sistema (ES2110011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta hura kontserbatzeko neurriak ezartzeko dena.
- 83/2016 DEKRETUA, maiatzaren 31koa, Aizkorri-Aratz (ES2120002) Kontserbazio Bereziko Zona izendatu, eta hura kontserbatzeko neurriak ezartzeko dena.
  - o Horri buruz esan behar da Aizkorri-Aratzeko NBAP izapidetzen ari zela jada LPP onartu zen datan. Apirilaren 4ko 75/2006 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko eta 76/2006 Dekretuaren bitartez izendatu zen Aizkorri-Aratz Parke Natural (NBAParen 7.3.5 eta 9.2 art. baliogabetasun partziala, 2008an).

#### 0.4. Udal plangintza LPPren lurralde-eredura eta 2/2006 Legera egokitzea

LPP behin betiko onartu zenez geroztik onetsi da behin betiko hirigintza-plangintzaren berrikuspena ondoren adierazten diren hiru udalerri hauetan, eremu funtzionala osatzen duten bederatzietatik:

- Aramaio: HAPO 2012-08-03an onartu zen behin betiko, bere baldintzak eta etete partziala barne. 2017-12-14an, baldintzak beteta zeudela iritzi izan zitzaion –IB-13 sektorearen eta IB-10 eremuaren sailkapenari buruzkoa barne–, eta behin betiko onartu zen, halaber, Arabako Foru Aldundiak onetsitako inbentarioan sartuta zeuden udalerriko landaguneei zegokien plana, Oletako guneari buruzko proposamenak etenda jarraitzen duen arren. Testu bateginaren mende. Geroztik, aldaketa bat onartu da (ALHAO, 2017-06-07), hiri-lurzorua eta antolamendu xehatuko zenbait esparruren mugaketari buruzkoa; HAPOk Zabolako landagunearen mugaketaren inguruan egindako akats material baten zuzenketa (ALHAO, 2019-04-15). Aipatu behar da eskura dagoela Arabako lurzoru urbanizaezineko landaguneei inbentarioa (Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 1eko 78/2009 Foru Dekretua).
- Arrasate: HAPO 2016-03-22an onartu zen behin betiko (GAO 2016-05-31). Geroztik, aldaketa bat onartu da: baserri bat ezabatu da (Gomestio) HAPOren katalogotik (GAO 2018/04/27); Lurzoru Urbanizaezineko Plan Berezi bat onartu da Zabalagainen (Zabolain) zalditegi bat ezartzeko (GAO 19/05/17).
- Bergara: HAPO 2009-05-25ean onartu zen behin betiko (GAO 2009-07-27). Geroztik: hainbat aldaketa barnean hartzen dituen aldaketa bat (GAO 2012-12-17). Honako hauek dira aipagarrienak: HAPO Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituraren LPSra egokitzea, zeinak bi azpiegitura ezartzen baititu (Transferentziagunea eta Konposta egiteko instalazioa) Epeleko hondakin geldoen Zabortegiaren ondoko lurretan (geroztik, aldaketa horrek eskatzen zuen Plan Berezia onartu da; GAO 2013-07-05); A-57 esparruko jarduera ekonomikoetarako hiri-lurzoru finkatuko 91.350 m<sup>2</sup>-ko azalera lurzoru urbanizaezinerara (San Joan auzoa) birsailkatzea; 3.919 m<sup>2</sup>-ko azalera birsailkatzea eta birkalifikatzea, zerbitzu orokorretako azpiegiturarako –erregai-zerbitzugunea– (esparru berri baten sorkuntza: A-59).

Oñatiko udalerrian hirigintza-plangintzaren berrikuspenaren behin betiko onarpena LPPren onespenezkin batera gertatu zen.

- Oñati: 2005-04-12an onartu ziren behin betiko b motako arau subsidiarioak (GAO 2005-05-03, 2006-06-29, 2007-02-26, 2007-07-13). Hasierako onarpena LPP indarrean sartu baino lehenagokoa da, eta, beraz, LPP behin betiko onartzeko dekretuaren bigarren xedapen iragankorraren arabera, ez zegoen behartuta haren zehaztapenak betetzera. Nolanahi ere, arau subsidiarioak berrikusten hasita daude (HAPOren aurrerapena jendaurrean jarrita dago: GAO, 2020-08-12).

Gainerako bost udalerrietan, indarrean mantentzen dira LPP behin betiko onartu zen datan indarrean zeuden Plangintzako Arau Subsidiarioak (geroztik izapidetu diren aldaketa puntualak barne):

- Antzuola. Indarrean jarraitzen dute 2003an onartutako b motako arau subsidiarioek (GAO 03-09-29 eta 05-09-05).
- Aretxabaleta. Indarrean jarraitzen dute 2001ean onartutako b motako arau subsidiarioek (GAO 00-06-02 eta 2001-05-21). 2020an erabaki da berrikuspenari ekitea (GAO 20-06-04).
- Elgeta. Indarrean jarraitzen dute 2004an onartutako b motako arau subsidiarioek (GAO 04-02-13 eta 05-03-04).

- Eskoriatza. Indarrean jarraitzen dute 2000n onartutako b motako arau subsidiarioek (GAO 2000-02-19 eta 2002-10-01).
- Leintz-Gatzaga. Indarrean jarraitzen dute 1987an onartutako b motako arau subsidiarioek (GAO 1987-07-23).

Beraz, bederatzi udalerrietatik hiru dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitutako plangintza dutenak (Aramaio, Arrasate eta Bergara). Gainerako udalerriek ez dute plangintza egokituta, baina Oñati berrikuspena egiten hasita dago eta Aretxabaletak ere hartu du berrikuspena egiten hasteko erabakia. Gainerakoen artean (Antzuola, Elgeta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga), Leintz-Gatzagako plangintza Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak baino ere lehenagokoa da.

Plangintzan egindako aldaketak LPP behin betiko onartua izan ondoren:

- Antzuola: Bost aldaketa. Oso txikiak guztiak; aipagarriena lehenengo aldaketa litzateke (2006), zeinak bizitegitarako hiri-lurzoruko A-3 eremuan aurreikusitako etxebizitza kopuruari 20 gehiago erantsi baitzizkion.
- Aramaio: Aldaketa bat.
- Aretxabaleta. Sei aldaketa LPLren ostekoak. Aipagarrienen artean hauek daude: hiri-lurzoru baten mugaketa (lehen urbanizaezina zena), Debagoieneko zerbitzuen barruan, erabilera asistentzialeko gizarte-ekipamendutarako (zaharren egoitza) (2007); A4a esparruko hiri-lurzoru industrial bizitegi-erabilerrarako birkalifikatzea (2012).
- Bergara. Jada deskribatutako aldaketa bat, LPPz geroztiko HAPOrekiko.
- Elgeta. Aldaketa txiki bat (2012).
- Eskoriatza. Bi aldaketa txiki (2012 eta 2013).
- Leintz-Gatzaga. Aldaketarik ez LPPz geroztik.
- Oñati. Hiru aldaketa. Aipagarriena erauzketa-erabileren erregulazioari buruzkoa, bere araudian, nahiz eta ez duen arau subsidiarioen mugaketa aldatzen (2018).

## I. LURRALDE EREDUA. LPP-REN OINARRIZKO PROPOSAMENAK

Lurralde Plan Partzialaren esparrua Debagoieneko Eremu Funtzionala da. Eremu Funtzional honetan udalerriok sartzen dira: Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Arrasate eta Oñati. Aramaioko udalerria Arabako Lurralde Historikoan dago eta gainerako udalerriak, berriz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Beraz, txostenaren edozein atal Gipuzkoako eta Arabako foru aldundien iritzia eta gogoeten pean jarri beharko da.

Gainera, Aramaio udalerraren mendebaldean, Otxandioekin mugan, «Limitadua» izeneko eremua dago, bi udalerrien arteko auzibide izan den lurraldea; Otxandio Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerria da. Bi udalerrien arteko auziak lurralde-antolamenduaren eremua gainditzeko duenez, esandako esparru hori bai Debagoieneko LPPk eta bai Araba Erdialdeko LPPk antolatzen dute, eta zehaztapen berberak dituzte aipatutako espaziorako.

LPPren araudiaren 6. artikulua adierazten du lurralde-ereduak –6. planoan definitzen da– LPPren memorian azaltzen diren demografia-, gizarte/ekonomia- eta ingurumen-helburuei erantzuten diela, eta Eremu Funtzionalaren garapen- eta egokitzapen-premiak kontuan hartuta formulatzen direla, jasangarritasun- eta oreka-irizpideen arabera.

Jarraian zehazten du aipatutako eredu hori garatu ahal izateko hurrengo oinarritzko baldintza hauek arautzen direla: ingurunearen babes bereziko neurriak; lurralde-esparru homogeneoen mugaketa; hirigune nagusiak trinkotzea eta indartzea; Eremu Funtzionala egituratzeko oinarritzko baldintzak; lurraldea berrorekatzeko proposamenak; jarduera ekonomikoetarako lurzorua prestatzeko egindako proposamenak.

Erabilera eta jardueren erregulazioa lurralde-ereduaren hurrengo osagai hauetako bakoitzaren eremuen arabera sistematizatzen da:



- Ingurune fisikoa: Natura-intereseko eremuak; nekazaritza-intereseko eremuak; interes hidrologikoa duten eremuak; interes geologiko-morfologikoa duten eremuak; hobetu eta/edo berreskuratu beharreko eremuak; gainerako lurraldea.
- Azpiegiturak eta zerbitzuak: Garraioak eta komunikazioak (bide-sarea, trenbide-sarea); oinarritzko azpiegiturak.
- Ekipamenduak eta espazio libreak (espazio libreak, hiri-periferiako parkeak).
- Hiri-kokaguneak. Bizitegitarako eta industriadako lurzorua (hiri-esparru garatuak; garapen berriko lehentasuneko eremuak; hiri-garapenik gabeko esparruak).

## 1. INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

### 1.1. LPPren zehaztapenak

#### 1.1.1. Lurraldearen kategorizazioa.

LPPk babes berezia ematen du 1. planoan zedarritzen diren hurrengo kategoria hauetan: Natura-intereseko eremuak; nekazaritza-intereseko eremuak; interes hidrologikoa duten eremuak; interes geologiko-morfologikoa duten eremuak; hobetu eta/edo berreskuratu beharreko eremuak. Aztarnategi arkeologikoak eta paleontologikoak ere identifikatzen ditu. Aurreko mugaketek ukitzen ez duten lurraldea, berriz, «lurraldearen gainerako zati» gisa identifikatzen da.

#### Natura-intereseko eremuak.

- Naturagune Babestuak (parke naturalak, biotopo babestuak, zuhaitz bakanak eta Natura 2000 Sarea). Hurrengo hauek jasotzen ditu:
  - o Urkiolako Parke Naturala, Aizkorri-Aratzeko Parke Naturala, Udalatx (etorkizuneko parke gisa ezartzen du)
  - o Eskoriatzako sekuaia, Aretxabaletako gaztainondoa eta pinua, Monterron parkeko sekuaia (Arrasate) (D 23/1997 izendatua), zumar hostozabala (Oñati), elorri zuria eta gorostia (Oñati), Bergarako magnolia (D 265/1995 izendatua)
- Natura-intereseko eremuak. Hurrengo hauek jasotzen ditu:
  - o Irukurutzeta-Sorus-Itxumendi-Gorla-Trekutz, Gorostiaga mendia edo Satui-Arrolamendi, Albinagoiako pagadia.

LPPren memorian Irukurutzeta-Trekutz mendilerroa Irimorantz (Goierriko eremu funtzionalean) luzatzeko aukera aipatzen da.

- Intereseko beste toki batzuk. Hurrengo hauek jasotzen ditu:
  - o Kantauriar isurialdeko haltzadia Deba, Araotz-Arantzazu, Iñola, Olaeta eta Urkiola ibaien ertzetan; bai eta Urkulu, Aixola, Albina eta Urrunaga urtegien arroetan ere.
  - o Artadi txikiak Aramaion eta amezti txikiak Aramaion eta Leintz Gatzagan.
  - o Pagadi eta harizti txikiak eta baso mistoak Antzuolan, Aramaion, Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan.

Nekazaritza intereseko eremuak. Eremu funtzionalerako garrantzizkoak diren eta nekazaritza-potentzialtasun berezia duten lurzoruei deitzen zaie horrela; beroriek babestea bilatzen da, esparruaren oreka gordetze aldera. Arlo mugatu horretan azalera handiena duen eremua Aramaion dago (Iñola eta Olaeta erreken inguruko ibarretan). Nabarmentzekoak dira, halaber, Ubera eta Sestoerrekaren ibarreko (Bergara-Elgeta artean) eta Urkulu urtegiaren mendebaldeko azalera mugatuak.

Interes hidrologikoa duten eremuak. Horrela identifikatzen dira, alde batetik, barnealdeko lurgaineko urak (ibaiak, errekek eta urtegiak) eta horiei dagozkien babes-eremuak; bestetik, lurpeko urak ere hor sartzen dira, bai eta Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean jasota dauden hezeguneak ere, esandako planaren araupean baitaude.

- Lurgaineko urak (Ibai eta Erreka Ertzak Antolatze LPS)
- Lurpeko urak. Akuiferoen babesa.
- Hezeguneak (Zona Hezeen LPS). EG2 Urkuluko urtegia (Aretxabaleta); EG7 Aixolako urtegia (Elgeta); EG 10 Araotzeko urtegia (Oñati); EG15 Albistegiko presa (Elgeta); EA 10 Albinako urtegia (Aramaio); B3G1 Asentzioko putzua (Elgeta); B3G3 Aranburuko putzua (Oñati); GA1 Oletako Etxaldeko baltsa (Aramaio)

Interes geologiko-geomorfologikoa duten eremuak. Erreferentziako balioa, eremu funtzionalaren eskalan duten garrantzia eta kultura- eta hezkuntza-interesa –ingurumen-arlokoaz gainera– biltzen dituzten hurrengo eremu hauek identifikatu ditu.

1. Eguarbiztako haitza; 2. Ugarriaga-Azpikoako faila eta arrakala tektonikoa; 3. Udalako konplexu karstikoa; 4. Arantzazu-Zañartu bailara; 5. Maringo lerradurak; 6. Leintz-Gatzagako lerradura anizkunak; 7. Kurutzebarriko malda; 8. Orkatzategiko malda; 9. Jaturabel-Araotzeko

haitzarte karstikoa; 10. Aloñako malda; 11. Gesaltza-Zelaizabaleko osina; 12. Arlabango jalkin zintzilikatua; 13. Degurixako dolina; 14. Biozkorniako dolina; 15. Alabitako dolina; 16. Aitzkorriko konplexu karstikoa; 17. Arrikruzeko haitzuloa.

Hobetu eta/edo leheneratu beharreko eremuak. LPPren memoriak ingurumen aldetik lehengoratu beharrezkotzat identifikatzen ditu honako eremu hauek:

- Hurrengo zabortegiok (eragiten dien ingurumen-erregulazioa edozein dela ere): Akei, Unión Cerrajera (Labe Garaiak); Epele.
- Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeako Lurralde Plan Sektorialaren arabera lehengoratu premia duten hurrengo ibai- edo erreka-ertzak: Deba 40 (Arrasate); Deba 36 (Bergara); Angiozar I (Bergara).

Aztarnategi arkeologikoak eta paleontologikoak. Aitzkorriko eta Elgea-Artiako estazio megalitikoak identifikatzen ditu (monumentu-multzo kategoriarekin kalifikatuta daude ekainaren 24ko 137/2003 Dekretuaren arabera). Zehazten du testu berean ezartzen dela berorien babes-araubidea.

Gainerako lurraldea. LPPk berariaz babestu gabeko eremua da; beraz, udal plangintzari dagokio lurralde hori kategorizatzea eta arautzea.

23. artikulua ezartzen duenez, udal plangintza orokorrak LPPren kategorizazio-proposamenak errespetatu beharko ditu, eta landa-ingurunean 1. planoan mugatutako lurraldean egokiak diren zonakatzeko proposamenak garatu beharko ditu. Artikulu berak ezartzen du, halaber, LPPk babesten ez duen lurraldea udal plangintzak kategorizatuko duela, LAGetan ezarritako kategorien arabera.

#### 1.1.2. Espazio babestuen eta Batasuneko Garrantzizko Lekuak antolamendu-politika.


Arrasate-Bergarako (Debagoiena) LPP behin betiko onartu zenetik, eta eskuragarri dauden iturriak kontsultatu ostean, hiru garapen-lerro esanguratsu ikusten dira, LPPn babestu beharreko eremu garrantzitsuenekotzat adierazten diren espazioetan:

- EAEko hezeguneen Inbentarioaren aldaketa (Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko maiatzaren 3ko Aginduaren bidez), Hezeguneen LPSko I. eta III. multzoetan jasotako hezeguneak berrikusten, mugatzen eta kartografiatzen dituenak.
- KBZ izendatzea honako hauek: Barrundia ibaia (2012), Zadorraren sistemako urtegiak (2015), Urkiola (2016) eta Aizkorri-Aratz (2016)
- Babes-figura bat baino gehiago dituzten naturagune babestuei dagokienez, Natura Kontserbatzeko Euskal Legearen Testu Bateginaren 18. artikuluan honako hau xedatzen da: «Espazio babestuetako zenbait figura leku berean gainezarriko balira, gunen horien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko dira, eremuaren kudeaketa-planean, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin». Egin da jada Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren aldaketa eta, beraz, Aizkorri-Aratzeko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana berrikusi beharko da orain.

Aipatzekoa da administrazio batzuek eta besteek gauzatu dituzten ingurumena babesteko politikak koherenteak direla LPPn jasotzen diren zehaztapenekin:

- EAEko hezeguneen Inbentarioaren aldaketak eremu funtzionaleko hezeguneak babesteko politikan sakontzen du.
- Adierazi diren Batasuneko Garrantzizko Lekuak (BGL) Kontserbazio Bereziko Zona (KBZ) izendatzea izapidetzean, dagozkien kontserbazio-neurriekin, LPPra egokitzen den espazioak babesteko politika garatzen da, kontserbazioaren xede diren habitat eta espezieen kontserbazio-egoera eta -helburuak mugatzeari, identifikatzeari eta definitzeari buruzko lan tekniko eta zientifikoetan oinarrituta.

## LPPren Ingurune fisikoaren antolamendua



### 1.2. LPP eta LAG bat etortzea

Lurralde-plangintzan Ingurune Fisikoaren Antolamenduari dagokionez, LAGen 3. artikulua, «*Ingurune fisikoaren antolamenduaren arloko gidalerroak*» izenekoak, honako hau ezartzen du:

3.4.a) 2. artikulua. *Lurralde-plangintzak antolamendu-kategorien zonakatzea eta baldintzatzaile gainjarriak mugatuko ditu eta dokumentu honetan ezarritako erabileren arauketa haren arlo funtzionalera egokituko du. Baldin eta lurralde-plangintzaren eremuaren barruan ingurumen-balioengatik edo Urdaibaiko Biosfera Erreserban egoteagatik babestutako espazioen bat badago, horien legeri sektorialean jasotako zonakatzea eta erabilera-arauketa txertatuko ditu.*

Debagoieneko LPPk ez du bere eremu funtzionalaren kategorizazio osoa egiten; aitzitik, babestu edo lehengoratu beharreko interes-eremuak adierazi baizik ez du egiten; beraz, ez da koherentea LAGekin, eta, etorkizuneko berrikuspenean, LPPk ingurune fisikoaren kategorizazio batetik abiatu beharko du, LAGen kategorien arabera.

Bestalde, ingurune fisikoaren antolamenduaren arloko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen ekarpenetako bat Azpiegitura Berdearen kontzeptua da. Lurralde-eskalan kontzeptu hori osatzen duten elementuak, funtsean, naturagune babestuak edo interesa duten espazioak dira, eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemikoengatik eta sarean lotzen dituzten korridore ekologikoengatik. Horri buruz, LAGetako 4. artikulua, «*Azpiegitura Berdea eta ekosistemen zerbitzuak*» izenekoak, honako hau ezartzen du lurralde-planei begira:

4.6. artikulua.- *Lurralde Plan Partzialen kasuan:*


- *EAEko eta eremu funtzionaleko eskalari dagokion azpiegitura berdea zedarritzeta, eta hirigintza-plangintzan baldintzak ezartzea, toki-mailara arte jarraitu ahal izan dezan. Hiri-garapeneko perimetroen inguruko eraztun berdeak haien eskalako azpiegituraren zatitza hartuko dira.*



- Jarraitutasun ekologiko eraginkorra lortzeko irizpide, neurri eta ekintzak ezartzea: landaredia eta ekosistemak leheneratzea, nekazaritza-matrizea iragazkortzea eta konektore ekologikoak eratzen dituzten elementuak berrezartzea, eta nekazaritza-erabilera tradizionalak mantentzea.
- Azpiegitura berdeak azpiegitura grisekin dituen interakzio-puntuak identifikatzea eta interakzio horiek kudeatzeko neurriak ezartzea.
- Ekosistemen zerbitzuen ebaluazioa kontuan hartzen duten adierazleak jasotzea.
- Lurralde-eskalako proposamenak osatzeko, dagozkien betearazpen-neurriak eta udal-mailaz gaindiko erakunde esku-hartzailearen finantzaketa-neurriak jasoko dira LPPan. Horretarako, erakundeak koordinatuta arituko dira, proposamenok programatu eta finantzatzeko.

Debagoieneko LPPk ez zuen kontzeptu berri hori jasotzen; beraz, etorkizuneko berrikuspenean, LPPk LAGetan definitutako azpiegitura berdearen elementuak jaso beharko ditu, bai eta Azpiegitura Berde hori zehaztu ere, korridore ekologikoak barne, eremu funtzionalaren mailan.

Azpiegitura Berdea. LAG



### 1.3. LPP integratzea LPSekin edo beste plangintza sektorial batekin (KBZ)

Adierazi den bezala, interes hidrologikoa duten eremuen barruan, barnealdeko lurgaineko urak (ibaiak, errekek eta urtegiak) eta horiei dagozkien babes-zonak identifikatzen dira, guztiak ere EAEko Ibaiei eta Erreken Ertzak Antolatzeako Lurralde Plan Sektorialaren barruan definituta egonik.

Babes bera dute, halaber, lurpeko urek (akuiferoen babesa) eta Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean definitutako hezeguneek: EG2 Urkuluko urtegia (Aretxabaleta); EG7 Aixolako urtegia (Elgeta); EG 10 Araotzeko urtegia (Oñati); EG15 Albistegiko presa (Elgeta); EA 10 Albinako urtegia (Aramaio); B3G1 Asentzioko putzua (Elgeta); B3G3 Aranburuko putzua (Oñati); GA1 Oletako Etxaldeko baltsa (Aramaio).

Natura babesteko plangintza sektorialari dagokionez, aurretik ere adierazi den bezala, Barrundia ibaia, Zadorraren sistemako urtegiak, Urkiola eta Aizkorri-Aratz LPP onartu ostean deklaratu ziren

Kontserbazio Bereziko Zona. Hori dela eta, diferentzia txiki batzuk daude KBZen eta natura-intereseko eremuen mugen arteko puntu batzuetan; baina, antolamenduari dagokionez, espazio horietako babes-figuren eta LPPren arteko integrazioa Natura Baliabideak Antolatzeke Planen nahitaezko berrikuspenaren bidez gauzatuko da, aurrez ere aipatu den moduan.

Azkenik, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala LPP onartu ostean onetsi zenez, LPPren nekazaritza-intereseko eremuen kategoria ez da koherentea LPSk nekazaritza nahiz abeltzaintza eta landazabaleko lurzorurako –Balio Estrategiko Handiko azpikategorian– egindako mugaketarekin, beraz, egokitu egin beharko da LPP puntu horretan, berrikusten denean.

## 2. LANDA-HABITATA

LPPn sakabanatutako landa-kokagune gisa bereizten dira –nahiz eta ez den, beroriei begira, zehaztapen zehatzik ezartzen–, ondoren zerrendatzen diren gunek hauek:

- Lizarraga (Antzuola)
- Angiozar, Ubera eta Elosua (Bergara)
- Araotz, Urruxola eta Uribarri (Oñati)
- Bedoña eta Udala (Arrasate)
- Aozaratza, Areantza, Arkarazo, Etxebarri, Galartza, Goroeta, Izurieta, Larrino, Oro (Aretxabaleta)
- Apotzaga, Bolibar, Bolinaga, Gellao, Marin, Mazmela, Murgain, Zarimutz (Eskoriatza)
- San Martin (Leintz-Gatzaga)
- Alzaga, Arexola, Arraga, Arriola, Azkoaga, Barajuen, Etxaguen, Gantzaga, Gureia, Olaeta-Iñola, Suña, Untzilla, Uribarri eta Zabola (Aramaio)

Beste era bateko bizitegi-tipologiak sortzeko xedez –eta hiri-eremutik izadirako urratsa mailakatzeko–, LPPk eutsi egiten dio eskualdeko landaguneetako eraikuntza-garapena kontrolatzeko ahalmenari.

Gainera, lurraldera sartzeko guneeetan (Aramaio, Elgeta, Leintz-Gatzaga eta Oñati) zenbait eragiketa berezi definitu dira, funtsean, honetara zuzenduak: landa-ostatu jarduerak antolatzera eta sustatzera, bai eta kultura-jarduerak eta izadiak gozatzea xede dutenak ere.

Aipatu behar da aurrez adierazi diren gunek gehienak lurzoru urbanizaezin gisa daudela jasota hirigintza-plangintzan. Plangintza 2/2006 Legea egokitzearekin batera, sakabanatutako landa-kokagune horiek aipatu legeko 29. artikulua argitan aztertu eta landaguneko hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizaezin gisa sailkatu beharko dira; eraikitzeke aukerak, berriz, Legean bertan eta LAGetako «Ingurune Fisikoaren Antolamenduko» aplikazio-arauen II. eranskineko 1.b.3.e «Landaguneak» puntuan adierazitakora mugatuko dira.

## 3. HIRI HABITATA

### 3.1. LPPren lurralde-eredua

LPPren memoriak honako helburu hauek jasotzen ditu hiri-kokaguneei, bizitegi- eta industria-lurzoruei dagokienez:

- Debako luzetarako ardatz zentrala betetzea, dagoeneko ia errealtate den hiri-jarraipena finkatuz. Hala ere, espazio-erreserbarako zona bat proposatzen da hegoaldeko muturrean, eta beste espazio erreserbatu bat iparraldeko muturrean. Halaber, Elorregi-San Prudentzio zeharkako ardatz nagusiarekiko elkargunea –zentro adierazgarria– zuzkidura- eta parke-eremu gisa planteatzen da.
- Oñatiko zeharkako ardatz nagusia betetzea, eta ardatz horren izaera indartzea, eskualdeko oraingo bizefaliaren ordean trizefalia-egoerara igarotzeko. Zeharkako ardatzak gordetzea (Urkulu eta Zañartu).
- Debaren zeharkako ardatzak gordetzea (Deskarga, Ubera eta Aramaio), oro har hiri-garapenik gabeko korridoreen bidez, eta espazio-erreserba bat Uberaren ondoan; bai eta hiri-garapenik gabeko beste korridore batzuk ere, bigarren mailakoak: Angiozar eta Epele. Horrela, gunek «isolatu» gisa agertzen dira, hirigune jarraituaren parte izan gabe, Antzuola eta Elgeta, alde batetik, eta Leintz-Gatzaga eta Aramaio, bestetik.

- Espazio-erreserba handi bat definitzea Albinagoian, inguruak dituen izadi- eta ingurumen-ezaugarri bereziak kontuan hartuta.
- Urkulun espazio-erreserba bat definitzea (urtegia eta ibaia – urtegi posiblea etorkizunean).
- Hiri-zabalgunerako eta kirol-, irakaskuntza- eta teknologia-ekipamendutarako plangintza orokor, bateratu eta integraleko esparru bat mugatzea (Garagaltza-Berezao Oñatin).
- GARAIA / MONDRAGON UNIBERTSITATEA Berrikuntza Poloa Arrasaten, alde zurretik aipatutako Garagaltza-Berezao eremuan jarraipena izateko aukerarekin.
- Jarduera ekonomikoak oinarritzko egituratik kanpo, estrategikoki kokatuak komunikabide handietarako sarbideetan.

Plana zehaztu eta gauzatzeko, hiru lurralde-esparru bereizten ditu Eremu Funtzionalean: Bergaraldea (Antzuola, Bergara eta Elgeta), Oñatialdea (Oñati) eta Leintz Bailara (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aramaio).

Lortu nahi den hiri unitarioaren kontzeptutik abiatuta, udalerri bakoitzak paper edo eginkizun osagarria betetzen du. Bergara, Arrasate eta Oñati egongo dira burutzan. Era berean, Antzuola eta Elgeta (Begaraldea) eta Aretxabaleta eta Eskoriatza (Leintz-Gatzaga) izango dira azpieskualdeko bizitegi-aukera berriak. Lurralderako Sarbide Gune gisa bereizten ditu Aramaio, Elgeta, Leintz-Gatzaga eta Oñati.

Aurretik zeuden kokaguneak kontsolidatzea proposatzen du, zehatzago esanda, kokagune horiek berritzea, birgaitzea eta eraldatzea. Hiri-berroneratzea gauzatzeko bi motatako esku-hartzeak ezartzen ditu gune kontsolidatueta (birgaitzea eta eraldatzea) eta zehaztu egiten ditu:

- Birgaikuntzarako eremu gisa, eremu funtzionaleko bederatzi udalerrietako hirigune historikoak hartzen ditu.
- Hiri-eraldaketa eremu gisa hartzen ditu, berriz, honako hauek:
  - Santa Marina (Eskoriatza), BEROA-Zerrategia (Aretxabaleta), Berraondokua-Zabala (Elgeta), San Antonio kotoi-fabrika (Bergara) eta Lizarraga-Hilaturas (Antzuola) bizitegitarako xedearekin.
  - Trefasa-Mendibarren (Arrasate) zuzkiduratarako xedearekin.
  - Unión Cerrajera Zabalgunea-Gelma-Gamei (Arrasate) bizitegi- eta zuzkidura-xedearekin.
  - Zabaleta-Garratz (Arrasate) eta CEGASA (Oñati) hirugarren sektorerako xedearekin.

Kategoria hauek bereizten ditu lurraldean: hiri-eremu garatuak, garapen berriko lehentasuneko eremuak eta garapenik gabeko esparruak. Lehenengoan helburua hiri-garapenak kontsolidatzea eta lehendik daudenak berroneratzea da, bai eta hiri-bilbeak osatuz joatea ere. Bigarrenei buruz ezartzen da lehendik dauden azpiegiturekin eta hirigintza-garapenekin zuzenean lotuta proiektatuko direla. Bi kasuetan, berariaz aipatzen du erabilitako lurzoru-baliabidearen erabilera optimizatzea eta *«jarduera ekonomikoetarako nahiz ekipamenduetarako nahiz bizitegitarako ehun konplexuak ezartzera bideratutako lurzoruak, gehienak mistoak»* izango direla.

Hiri-garapenik gabeko esparruak hiri-garapen gabeko hainbat korridoretan banatzen ditu; horietan, berez dituzten ezaugarri bereziak gordetzea da helburua, duten kokapenagatik, paisaia-balioengatik eta lurralde-ereduan integratzeko baldintzengatik; eta zenbait espazio-erreserbatan, etorkizuneko azpiegiturak edo garapenak aurreikusten direlarik, baina antolamendu-jarraibiderik eman gabe.

Era berean, baldintza bereziak ezartzen ditu berariaz xede horretarako erabakitako eremuetatik kanpo garapen berriak antolatu behar diren kasurako (salbuespenezko aurreikuspena). Berariaz debekatzen du isolatutako familia bakarreko etxebizitza berriak eraikitzea hiri-eremuetatik kanpo, nekazaritza edo abeltzaintzako ustiapenari lotuta daudenean salbu (1997ko LAGetara igortzen du).

### 3.2. LAG. Gidalerroak eraldatze-ardatzen arloan

Hiri ertainak eta haien lurralde-ingurunea indartu, artikulatu eta modu jasangarrian garatzeko, LAGek «eraldatze-ardatzak» deituriko figura sartzeari proposatu dute. Lurralde-esparru batez ere linealak dira, garraio kolektiboaren euskarria dutela, eta hiri ertainen garapen-prozesuak artikulatuko dituzte, haien protagonismoa areagotuta jasangarritasun-irizpideei jarraikiz eta hiriek gainezka egiteko prozesuak saihestuta, haran-hondoetako esparru berezietan.

eraldatze-ardatzak hiri-espazioak egituratzea, berriztatzea eta garatzea ez ezik, espazio libreak babestea eta hobetzea xede duten proiektuak dira; horretarako, ibaiertzen berreskurapen aktiboa bultzatuko dute, korridore ekologiko modura jardunez eta ardatzetako azpiegitura berdea zeharkako korridoreekin lotzen eta txertatzen dituztela.

LAGetako 9. artikuluan daude jasota «eraldatze-ardatzen arloko gidalerroak»; honako hauek dira:

1.– Lurralde Plan Partzialek, Eraldatze Ardatzei dagokienez, honako zehaztapen hauek garatuko dituzte:

- a) Antolamendu-irizpideak eta Eraldatze Ardatzak konfiguratzeak beharrezkoak diren ekintzak barnean hartzea eremu funtzionalerako burutzen eta azpiburutzen hiri-sistemaren definizioaren osagarri gisa.
- b) Eraldatze Ardatzetan txertatzen diren ibai-ibilguak eta ur-bazterreko espazioak korridore ekologiko bihurtzea.
- c) Eraldatze Ardatzetan honako hauek biltzea: garraio kolektiboko sistemarako euskarri diren elementu linealak, hiri-berrikuntzako eremuak eta hirigintza-erabilerarik gabe izan behar diren espazio libreak.
- d) Urbanizazio jarraituak ekiditea, urbanizaziorik gabeko lurzoru-tarteak libre utzita, lurralde-elementu natural eta hirikoen artean oreka bat finkatuz.
- e) Saihesbideak edo errepide alternatibo berriak egin direlako funtzionaltasuna galdu duten errepide-tarteak berriz diseinatzea, tarte horiek ekobulebar bihurtuta, Eraldatze Ardatzen hiri-esparruetako bide-euskarri izateko.
- f) Sakabanatutako sareak berritu, trinkotu eta artikulatzea lehenestea, gune tradizionalen hiri-irudia hobetu eta nortasun-ezaugarriak indartuta, hazkunde berrien aurrean.
- g) Soilik garraio kolektiboko sistemarako izango diren plataformak txertatzea, geltokiei hiri-zentralitateko nodoen izaera emanez, etxebizitzetarako, lantokietarako eta ekipamenduetarako askotariko erabilerekin, baita aparkalekuetarako erabilerarekin ere, oinezkoen eta bizikleten ardatz nagusiekin trukea eta konexioa errazteko lagungarri izan daitezkeenak.
- h) Hirigintzako eta arkitekturako diseinu bioklimatikoaren printzipioak sustatzea, Eraldatze Ardatzen ingurumen-jasangarritasuneko elementutzat hartuta.

2.– eraldatze-ardatzak jasotzen dituzten Lurralde Plan Partzialetan aintzat hartuko dira Memoriako 6.1.3. apartatuko IV. puntuan, «Eraldatze-ardatzak, eremu funtzionalen arabera» deritzonean, jasotzen diren gidalerroak.

3.– Lurralde-eskalako proposamenak osatzeko, dagozkien betearazpen-neurriak eta udal-mailaz gaindiko erakunde esku-hartzailearen finantzaketa-neurriak jasoko dira LPPan. Horretarako, erakundeak koordinatuta arituko dira, proposamenok programatu eta finantzatzeko.

Debagoieneko Eremu Funtzionalerako honako eraldatze-ardatz hau bereizi da:

b) Debagoieneko Eremu Funtzionala. Debagoieneko eraldatze-ardatza

Eremu Funtzionala EAEko lurraldearen erdigunean dago eta honako hauek dira bere ezaugarri nagusiak: hiri-sendotasuna, unibertsitate- eta ikerketa-zentroak, berrikuntza-guneen sorrera –esaterako, Olandiano-Garaia parke teknologikoa–, eta lurralde horretan bereziki garatutako gizarte- eta ekonomia-antolamendurako formula sortzaileak. AP-1 autobidea abian jarri izanak aldaketa erabakigarria ekarri du Eremu honen lurralde-auekerei dagokienez; hasteko, edukiera handiko konexio-elementua da Debabarrenarekin eta EAEren iparraldeko metropoli-espazioekin, eta zuzeneko lotunea ahalbidetzen du Gasteizekin.

Eskualde-zentralitatea indartzeko eta Eremu Funtzionalaren berritze- eta garapen-dinamikak artikulatzeko Debagoieneko Eraldatze Ardatza definitzea proposatzen da. Ardatzak Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara udalerriak lotzen ditu, Oñatirekiko lotunea barne, eta horrela, zentro anitzeko hirigunea eratu da haranean.

Ardatz hau antolatzeak planteatzen diren gidalerroak honako hauek dira:

b.1 Ardatzaren antolamenduan txertatzea GI-627 errepidea ekobulebar bihurtzeko prozesua. Ibilbide luzeko trafikotik libre geratu da errepide hori, AP-1 autobidea abian jartzearekin batera.

b.2 Izaera egituratzailearekin barnean hartzea garraio kolektiboko ardatz bat sortzeko prozesua, ibilbide osoan barrena joango dena, hiriarteko artikulazioa bermatuta.

b.3 Ardatzaren antolamendua artikulatzea Deba ibaiaren ibilguaren inguruan, eremuaren korridore ekologiko gisa, jardun osoaren irizpide eta helburuen artean bilduta Ardatzaren beraren ingurumen- eta ekologia-balioak hobetzea eta berreskuratzea, uholde-arriskua aintzat hartuta.

b.4 Hiriguneak berroneratzeko eta deskongestionatzeko jardunak eta hirigune historikoen birgaitze integratua lehenestea, horretarako perimetro urbanizatuan jada sartuta dauden okupatu gabeko lurzoruak berrerabilita, lurzoru berriak okupatzearekiko alternatiba gisa, zona libreetan hirigintza-garapen berriak mugatuta gako-irizpide gisa haran honek gainezka egitea saihesteko.



*b.5 Deba haranean barrena kokatutako hiri-garapenen, alde batetik, eta, bestetik, landa-eremuen, hiri-aldiriko parkeen eta ingurunean kokatutako atsedenekuen arteko integrazio egokia bermatu beharko du Eraldatze Ardatzak; horretarako, eremu horiek konektatzea ahalbidetuko duen oinezkoen eta txirrindularien ibilbide-sarea kontsolidatu eta hobetu behar da.*

LPP bat dator Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan Debagoieneko Eraldatze Ardatzerako adierazitako hainbat proposamenekin. Adibidez, aipatzekoa da, esate baterako, LPPk ezartzen duen «hiri-garapenik gabeko korridoreen» lurzoru-kategoria, zeinaren helburua eremu horien ezaugarri bereziak gordetzea baita, duten kokapenagatik, paisaia-balioengatik eta lurralde-ereduan integratzeko dituzten baldintzengatik. Horrek bat egiten du LAGen eraldatze-ardatzetarako gidalerroen 9.1.e) artikuluekin.

Aurreko hori gorabehera, b.2 gidalerroari dagokionez (*«Izaera egituratzailearekin barnean hartzea garraio kolektiboko ardatz bat sortzeko prozesua, ibilbide osoan barrena joango dena hiriarteko artikulazioa bermatuta»*), berrius liteke LPPren proposamena: tranbia-ibilbide bat abian jartzea ibarraren luzetara. Era berean, honako egokitzapen hauek ere egin daitezke: hala definitutako esparruak doitzea, ekobulebar kontzeptua erabiltzea GI-627 errepidearen diseinuan edo Deba ibaiaren ibilgua korridore ekologiko gisa hartzea, uholde-arriskuak kontuan hartuta.

### 3.3. Bizitegitarako lurzorua

LPPren memoriak jasotzen du mantentze demografikoari begira lurralde-antolamenduko ereduan ezarrita dagoen esku-hartzeak eta, bestalde, lurraldeak bizitegi-kokaguneak ezartzeko duen ahalmen urriak hurrengo ondorio hauek izango dituela:

- Hiri-esparruetan biztanleria-dentsitate altuak ezarri beharra. Beraz, hiri-bilbe trinkoak garatzea.
- Malda leuneko mendi-mazelak «kolonizatu» beharra, lurraldearen ezaugarri fisikoetara egokitutako tipologia berriak erabiliz eta horietan ikertuz, horrez gainera, ohiko hiri-esparruek baino ingurumen-kalitate handiagoa eskain dezaten.
- Horrek esan nahi du dentsitate apaleko (0-30 etxebizitza/ha) eta handiko (>50 etxebizitza/ha) eremuak garatu behar direla, aipatutako ezaugarriak direla eta. Zehazten da dentsitate ertaina (30-50 etxebizitza/ha), batik bat, lehendik planifikatutako guneei dagokiela, adierazten den beste jarduketaren batez gainera.
- Esponjatze maila apala merkatuan aipatutako erabilera horretarako lurzorua jartzerakoan, esan bezala, lurzoru-eskasiagatik.
- Administrazioaren esku-hartze irmoa (esparru guztietan), ahal den neurrian gero eta handiagoa den espekulazioa arintzeko.

Etxebizitzaren kuantifikazioari dagokionez, demografia mantentzeko helburuari barneko lurraldeen arteko berronena gehitu behar zaio. Horretarako, kontuan hartuko dira eremu funtzionala osatzen duten hiru lurralde-eremuak (Bergaldea, Oñati eta Leintz Bailara), eta honako berronena hauek proposatzen ditu:

- Bergaldearen eta Oñatiren papera areagotzea. Bergaldean, Elgeta eta Antzuola indartzea, Bergara gehiegi ez asetzearren. Oñatiko sustapenaren barruan, jarduketa hau bereizten da: *«Hiri-zabalgunerako plangintza orokor, bateratu eta integrala. Garagaltza-Berezaoko kirol-, irakaskuntza- eta teknologia-ekipamendua»*.
- Era berean, babes ofizialeko etxebizitzak proposatzen ditu udalerrir guztietarako.

Adierazitako irizpideetan oinarrituta, bederatzi udalerrietako hirigune historikoak birgaitzea planteatzen da, eta helburuak ezartzen ditu, udalerrien arabera:

#### Bergaldea.

- Antzuola. Azpieskualdeko orekatzaile-papera, ondorio kualitatibo eta kuantitatiboekin. Dentsitate ertaineko mazelako okupazioa eta bi eragiketa hiri-eraldaketaren arloan: Hilaturas eta Lizarraga erreken ibarra (Elay eta Camacho). Orekatzaile-papera 100 etxebizitzatan zehazten da.
- Bergara. Udalerrria kasik beteta dagoenez, garai batean indarrean zeuden LAGen arabera lortzen diren datuetatik etxebizitzak atera eta Elgetan eta Antzuolan kokatu dira. Dentsitate ertaineko kokagunerako esparru bat planteatu da (San Martzial) eta hiri-eraldaketako eragiketa bat ere bai (San Antonio kotoi-fabrika). Oreka lortzeko 200 etxebizitza kendu behar dira.
- Elgeta. Azpieskualdeko berronerkatzaile-papera, ondorio kualitatibo eta kuantitatiboekin. Horretarako, dentsitate apal eta ertaineko bizitegi-ezarpenak proposatzen dira, baita hiri-

eraldaketa bat ere: Berraondokua eta Zabala Anaiak. Orekatzaile-papera 100 etxebizitzatan zehazten da.

Oñati.

- Oñati. Dentsitate handi, ertain eta apaleko kokaguneak eta Garagaltza-Berezaoko jarduketa espezifikoak sustatzea. Orekatzaile-papera 500 etxebizitzatan zehazten da.

Leintz Bailara.

- Arrasate. Dentsitate apal eta ertaineko okupazioak mazeletan. Hiri-eraldaketa sakona: jada hasita dago Unión Cerrajeran, Zabalgunean izango du jarraipena eta, epe luzeagora, Gelma-Gamein.
- Aretxabaleta. Hiri-okupazio nagusia mendebaldeko mazelan. Hiri-eraldaketa prozesu bat Zerrategiaren ingurunean.
- Eskoriatza. Ibarra okupatuz jarraituko da; dentsitate ertaineko okupazioa hegoaldera. Hiri-eraldaketa eragiketa bat, hil edo biziko garrantziarekin kalifikatu dena, Eskoriatzako hirigunerako, Santa Marinar.
- Leintz-Gatzaga. Hirigune historikoa betetzea eta birgaitzea.
- Aramaio. Hirigunearen hedapena, iparraldera eta hegoaldera, dentsitate ertaineko okupazioarekin.

Azaldutako guztia, etxebizitza-arloko beste zehaztapen batzuen artean, hurrengo hauetan zehazten da:

- Bi eremu mota ezarri dira: Garatutako hiri-esparruak eta garapen berriko lehentasuneko eremuak. Garapen berriko lehentasuneko eremuetan dentsitate handikoak, ertainekoak eta apalekoak bereizten dira.
- Bizitegi erabilera xede duten hiri-eraldaketako eragiketak dentsitate handiekin garatuko dira. Era berean, beste jarduketa batzuetara ere zabaldu da, eremu kontsolidatuen garapenari jarraipena emanik, garapen berriak dentsitate handiekin gauzatzea hautatzen duen irizpide orokorra. Dentsitate handiko hurrengo garapen hauek xedatu dira:
  - Hiri-eraldaketa: Beroa Zerrategia (Aretxabaleta); Cerrajera eta Gelma (Arrasate); Berraondokua (Elgeta); San Antonio kotoi-fabrika (Bergara); Lizarragako Hiribidea, Elai eta Hilaturas (Antzuola); Santa Marina (Eskoriatza).
  - Garapen berriak: Mendebaldeko mazela-Etxebarri (Aretxabaleta); Torrealdea (Elgeta); Garai (Oñati)
- Dentsitate apal eta ertaineko garapen berriak aurreikusi beharrari puntualki erantzuteko pentsatu diren kokapenak honako hauek dira:
  - Dentsitate ertaina: Aramaioren iparra eta hegoa; Kuatrena eta Elorreta (Eskoriatza); Uruburu-Uribarri (Arrasate); San Martin eta Ugarkalde (Oñati); San Martzial (Bergara); Uruburu (Elgeta); Ibarre eta Irausta-Irimo (Antzuola).
  - Dentsitate apala: Atxabalpe-Barrutieta (Arrasate); Orueta-Kirrukua eta Olabarrieta (Oñati); Larrabil (Elgeta).
- Planaren garapenean aurrera egin ahala, aldi horretarako Eremu Funtzionalean aurreikusten diren 9.536 etxebizitza berrietatik, gutxienez 2.510 etxebizitza antolatzea aurreikusten da babes ofizialeko etxebizitzaren araubidearen pean. Lurralde-esparruen arabera, gutxienezko aurreikuspen hauek ezartzen dira Babes Ofizialeko Etxebizitzak egikaritzeko Planaren denbora-tartean:
  - Bergaraldea: 700 (500 Bergara, 100 Antzuola, 100 Elgeta).
  - Oñatialea 600 (600 Oñati).
  - Leintz Bailara 1.210 (750 Arrasate-Mondragón, 220 Aretxabaleta, 150 Eskoriatza, 20 Leintz-Gatzaga, 70 Aramaio).

### 3.3.1. Bizitegi Kuantifikazioa, alderaketa UDALPLANekin.

Debagoieneko LPPren bizitegi-kuantifikazioko aurreikuspenak, LPP indarrean den aldian, hurrengo taulan biltzen dira:

|           | UDALPLAN<br>2006       | Debagoieneko LPP (2005) |       |         |       | UDALPLAN<br>2019           |                                        |                      |
|-----------|------------------------|-------------------------|-------|---------|-------|----------------------------|----------------------------------------|----------------------|
|           |                        | 8 urte                  |       | 16 urte |       |                            |                                        |                      |
| UDALERRIA | Dauden<br>etxebizitzak | Gutx.                   | Geh.  | Gutx.   | Geh.  | Dauden<br>etxebizit<br>zak | Aurreikusi<br>tako<br>etxebizitz<br>ak | 2018ko<br>lizentziak |
| Antzuola  | 794                    | 273                     | 413   | 363     | 550   | 998                        | 221                                    | 0                    |
| Bergara   | 6.077                  | 879                     | 1.404 | 1.169   | 1.872 | 7.240                      | 1.040                                  | 0                    |

|                    |        |       |       |       |       |        |       |    |
|--------------------|--------|-------|-------|-------|-------|--------|-------|----|
| Elgeta             | 422    | 193   | 317   | 257   | 423   | 596    | 193   | 0  |
| Oñati              | 3.926  | 1.281 | 1.698 | 1.704 | 2.264 | 5.190  | 520   | 34 |
| Arrasate-Mondragón | 9.044  | 1.382 | 1.885 | 1.837 | 2.514 | 10.465 | 1.481 | 0  |
| Arexabaleta        | 2.527  | 439   | 691   | 584   | 922   | 3.251  | 374   | 23 |
| Eskoriatza         | 1.546  | 292   | 464   | 388   | 618   | 2.013  | 149   | 0  |
| Leintz-Gatzaga     | 60     | 48    | 62    | 64    | 83    | 123    | 63    | 0  |
| Aramaio            | 265    | 123   | 218   | 163   | 290   | 724    | 288   | 0  |
| GUZTIRA            | 24.641 | 4.910 | 7.152 | 6.529 | 9.536 | 30.600 | 4.329 | 23 |

### 3.3.2. Udal-plangintza LPPren lurralde-eredura egokitzea.

Debagoieneko LPPk udalerrri bakoitzerako egiten dituen proposamen zehatzak aztertu dira, bai eta alderatu ere Udalplan 2019 deituan udal-plangintza bakoitzean jasotakoarekin.

ANTZUOLA (b motako arau subsidiarioak 2003-2005).

LPPk hiri-ereldaketako bi eragiketa proposatzen ditu, lehengo industria-erabileratik dentsitate handiko bizitegi-erabilerara (Hilaturas eta Lizarraga-Elay). Hilaturasekoa jasota zegoen jada arau subsidiarioetan hiriguneko bizitegi-eremuaren zati gisa; proposatzen da lehendik dagoen industria-erakinen ordeaz 114 etxebizitza berri eraikitzea, 70 etxebizitza/ha-ko dentsitatearekin (A-11). Lizarraga-Elaykoa, ordea, industrialde gisa aurreikusita zegoen arau subsidiarioetan, eta horrela jarraitzen du (A-16 eta A-17). Bi kasuetan ez da plangintza egikaritu. Proposatzen du, halaber, kokagune bat bizitegi-garapen berriko lehentasuneko jarduketarako, dentsitate ertainarekin (Ibarre/Irausta-Irimo). Arau subsidiarioek azalera horren zati bat bizitegitarako lurzoru urbanizagarri gisa mugatzen dute, dentsitate apaleko 44 etxebizitza egiteko; ez da garatu hori ere. Izapidetutako aldaketak irismen puntualekoak izan dira bizitegi-erabilerari dagokionez. Ikusten denez, nahiz eta oraindik ez diren udal plangintzara gehitu LPPko bizitegi-proposamenak, Antzuolak 221 etxebizitzako bizitegi-erabilerara du (aurreko sektoreko 44 etxebizitzak kenduta, gainerakoak hiri-lurzoruan).

BERGARA (HAPO 2009).

LPPk hiri-ereldaketako eragiketa bat proposatzen du lehengo industria-erabileratik dentsitate handiko bizitegi-erabilerara, San Antonio kotoi-fabrika inguruan. HAPOn aurreikusi da eragiketa hori (A-18): 320 etxebizitza berri eta 99 etxebizitza/ha-ko dentsitatea. Industria-erakina eraitsita dago jada, baina bizitegi-garapena ez da oraindik egikaritu. Halaber, udalerrriaren hego-mendebaldean, kokaleku bat planteatzen du dentsitate ertaineko bizitegi-garapen berriko lehentasuneko jarduketarako (San Martzial). Aurreikuspen horri dagokionez, HAPOk, hirigunetik hurbilen dagoen muturrean, lurzoru urbanizagarriko S-4-b sektorea gehitu du bizitegitarako, 144 etxebizitzako edukierarekin, oraindik garatu gabe badago ere. Aurreko sektorearen segidan, jarduera ekonomikoetarako hiri-lurzoru kontsolidatuko zerrenda bat barneratzen da. Ikusten denez, nahiz eta udal plangintzara LPPren kokapen horretako zati txiki bat baizik ez duen gehitu, Bergarak 1.040 etxebizitzako bizitegi-erabilerara du oraindik, horietako gehienak (847) hiriguneko hiri-lurzoruan. Gainerakoak, aurrez aipatutako S-4-b-ko 144 etxebizitzak alde batera utzita, Osintxu, Angiozar eta Uberako hiriguneeen artean banatzen dira, non hiri-lurzoruko azalera eta bizitegitarako lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen baitira.

ELGETA (b motako arau subsidiarioak 2004-2005).

LPPk hiri-ereldaketako eragiketa bat proposatzen du: lehengo industria-erabileratik dentsitate handiko bizitegi-erabilerara (Berraondokua/Zabala eremua). Mendebaldeko erdia (Zabala) jasota zegoen jada arau subsidiarioetan hiriguneko bizitegi-eremuaren zati gisa; lehendik zegoen industria-erakinen ordeaz 90 etxebizitza berri eraikitzeko, 62 etxebizitza/ha-ko dentsitatearekin (A-5). Aldiz, ekialdeko erdia (Berraondokua) industriarako aurreikusita zegoen Arau Subsidiarioetan, eta horrela jarraitzen du (A-7). Bi kasuetan ez da plangintza egikaritu. Proposatzen du, halaber, ereldaketa-eremu horren ekialdean (Torrealdea), bizitegi-garapen berriko kokaleku bat, dentsitate handikoa, hiri-eremu kontsolidatuaren segidan. Parte bat aurreikusita zegoen arau subsidiarioetan, eta partzialki egikarituta dago; 24 etxebizitza falta dira gauzatzeko. Beste bi kokagune ere proposatzen ditu, hiriguneeen iparraldean, bizitegi-garapen berriko lehentasuneko jarduketarako, bat dentsitate ertainekoa (Uruburu) eta bestea dentsitate apalekoa (Larrabil). Arau subsidiarioetan mugatuta zegoen Urubururen parte bat bizitegitarako lurzoru urbanizagarri gisa, dentsitate apaleko 66 etxebizitza egiteko (23 etxeb./ha), eta horrela gauzatu da. Larrabil ez dute plangintzan sartu. Esan behar da, bestalde, arau subsidiarioetan dentsitate apaleko bizitegi-garapenerako (16 etxebizitza egiteko) aurreikusita dagoen A-2 Torrekua-Sestoaldea esparruaren parterik handiena LPPk hirigune kontsolidatutzat hartzen duenetik kanpo

legokeela, bai eta bizitegi-garapeneko proposamenak hartzeko lehentasunezko kokaleku berezietatik kanpo ere. Ikusi da Elgetak, LPPren proposamen guztiak sartu gabe ere, 193 etxebizitzako bizitegi-educiera duela; hori guztia hiri-lurzoru kontsolidatuaren eta kontsolidatu gabearen artean.

OÑATI (b motako arau subsidiarioak 2005-2007). Berrikuspena izapidetzen; HAPOren aurrerapen-fasea.

LPPk lau kokaleku proposatzen ditu bizitegitarako garapen berritarako: Garai (dentsitate handia), San Martin-Ugarkalde (dentsitate ertaina; hego-ekialdera) eta Orueta-Kirrukua eta Olabarrieta (dentsitate apala). Garai, LPPren hirigune kontsolidatuak eta San Martin-Ugarkaldek inguratzen dutela, hego-ekialdeko mugaren segidan. Orueta-Kirrukua iparraldean dago, Garairen segidan, eta Olabarrieta hego-ekialdean, San Martin-Ugarkalderen ondoren. Garairen kasuan (dentsitate handia), arau subsidiarioek bizitegitarako lurzoru urbanizagarri gisa hartzen dute parte bat (Lazarraga II.2 sektorea), 246 etxebizitza berri egiteko edukierarekin, baina ez dentsitate handikoak (30 etxebizitza/ha-ko dentsitatea). Oraindik ez da egikaritu. San Martin-Ugarkalderen kasuan (dentsitate ertaina), arau subsidiarioek bizitegi-lurzoru urbanizagarriko bi sektore –dentsitate ertainekoak– mugatzen dituzte grafikoan islatutako eremuaren zati batean (II.10 Ugarkalde eta II.11 San Martinaldea), eta ia erabat gauzatuta daude. Zatiak handiena, hala ere, ez da plangintzan sartu. Orueta-Kirrukuari dagokionez, plangintzan ez da jasotzen; lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dago. Olabarrieta, berriz, arau subsidiarioek I.53 Olabarrieta bizitegi-lurzoru hiritarrekiko esparrua landa-jatorriko bizitegi-eremu gisa mugatzen dute, Olabarrietako bizigunea sendotzeko xedez, eta dentsitate apaleko garapena ahalbidetzen dute, guztira 64 etxebizitzakoa, lehendik dauden 30 etxebizitzatik abiatuta. Era berean, saihebidetaren ondoan, hirigunearen hegoalde osoa hartzen duela eta proposatutako Olabarrietako eremuaren azkeneraino hedatzen dela, kalifikazio definiturik gabeko garapen-eremu zabal bat mugatzen du LPPk, jarduera jakin batera bideratua: «hiri-zabalgunerako eta kirol-, irakaskuntza- eta teknologia-ekipamendutarako plangintza orokor, bateratu eta integraleko esparrua Garagaltza-Berezaon». Lursail horiek garapen minimoa izan dute orain arte: industria-, bizitegi- eta ekipamendu-esparru txikiak bidez garatu dira, baina gehienak ez dira garatu, ez eta plangintzan islatu ere. Ikus daitekeenez, Oñatik, LPPn aurreikusitako bizitegi-garapenerako kokapen gehienak udal plangintzan sartu gabe ere, bizitegi-educiera garrantzitsua du: 520 etxebizitza berri eraiki ditzake, horietatik 274 hiri-lurzoruan.

ARRASATE (HAPO 2016).

LPPk hiri-eraldaketako eragiketa bat proposatzen du (Unión Cerrajera-Zabalgunea-Gelma Gamei eremua), lehengo industria-erabileratik dentsitate handiko bizitegi-erabilera mistora eta zuzkidura-erabilera mistora. HAPOk bere horretan mantentzen du Zalduspe esparruaren jarduera ekonomikoetarako erabilera, zeina kokapen berean gainjartzen baita, eta gainerakoa bizitegi eta zuzkidurarako erabiltzeko eusten dio. Parte horren eraldaketa esan liteke ia erabat garatuta dagoela; Zerrajera esparruko 216 etxebizitzak (babes ofizialeko etxebizitzak) eta Legarreko 80 etxebizitzak egikaritzea falta da. Hirigunearen mendebaldean –hirigunea eta Garaia artean–, dentsitate ertaineko bizitegi-garapen berriko lehentasunezko jarduketarako kokaleku bat planteatzen du (Uruburu-Uribarri), eta Garaiaren segidan, Aramaio aldera, dentsitate apaleko beste bat (Atxabalpe-Barrutietia). Urubururi dagokionez, HAPOk lehengo bizitegi-erabilerari eusten dio, azalera urbanizagarria doitzen badu ere; halaber, Garaiako jarduera ekonomikoetarako esparru urbanizagarriaren bizitegi-azalera ere mantentzen du, zeina gainjarri egiten baita. Kokapen horren gainean, 372 etxebizitzako edukiera dago; 300 etxebizitza, 73 etxebizitza/ha-ko dentsitatearekin (Uruburu esparrua; urbanizagarria); gainerako 72 etxebizitzak Garaia esparrukoak dira. Atxabalpen, HAPOk kendu egin du lehengo bizitegi-erabilera; azaleraren zati bat hiri-lurzoru gisa mantentzen da, baina ELSO gisa, eta gainerakoa lurzoru urbanizaezina gehitu da. Ikusten da Arrasatek bizitegi-educiera garrantzizkoa duela oraindik; 1.481 etxebizitza ditu egikaritzeko; horietatik 1.009 hiri-lurzoruan. Lurzoru urbanizagarriko 100 etxebizitza Agerre dentsitate apaleko esparrukoak dira, zeinak onartuta baitzeukan bere Plan Partziala. HAPOk bere horretan eutsi dio.

ARETXABALETA (b motako arau subsidiarioak 2001).

LPPk hiri-eraldaketako eragiketa bat proposatzen du: lehengo industria-erabileratik dentsitate handiko bizitegi-erabilerara (Beroa/Zerrategia eremua). Hegoaldea (Zerrategia) arau subsidiarioetan jada jasota zegoen hiriguneko bizitegi-eremuaren zati gisa (A-24 esparrua) eta 110 etxebizitzako bizitegi-garapena proposatzen du, lehendik zeuden etxebizitzak kopuruari 90 gehiturik, 52 etxebizitza/ha-ko dentsitatearekin (A-24). Aldiz, iparraldea (Beoa) industriarako aurreikusita zegoen arau subsidiarioetan, eta horrela jarraitzen du (A-21a). Bi kasuetan ez da plangintza egikaritu. LPPk, halaber, hirigunearen mendebaldeko zona proposatzen du dentsitate handiko bizitegi-garapen berriko lehentasuneko jarduketarako (Etxebarri). Hirigunetik hurbilen dagoen zatia garatuta dago jada (430 etxebizitza; S-2b); baina lurzoru urbanizaezin gisa jarraitzen du sektore horren eta AP-1 autobidearen arteko azalerak.

Nabarmentzekoa da plangintzaren aldaketa batek (2012) bizitegi-esparru berri bat aurreikusi zuela (A-4a), 250 etxebizitzako edukierarekin (dentsitate handia; 144 etxebizitza/ha), baina ez da garatu; LPPk industria-erabilera ezarri zion, baina bizitegi-eremu gisa onartu zen, hiri-bilbearen jarraipen modura. Aretxabaletak 374 etxebizitzako bizitegi-edukiera du, guztiak hiri-lurzoru kontsolidatuaren eta kontsolidatu gabearen artean. Ez du lurzoru urbanizagarririk.

ESKORIATZA (b motako arau subsidiarioak 2000-2002).

LPPk hiri-erlaketako eragiketa bat proposatzen du dentsitate handiko bizitegi-erabilera (Santa Marinar). Arau subsidiarioetan aurreikusten da jarduketa hori (A-9; 76,70 etxebizitza/ha), 78 etxebizitzako hazkundearekin, egungo 57 etxebizitzekin alderatuta, nahiz eta ez den garatu. Halaber, bizitegi-garapen berrirako bi kokaleku proposatzen ditu, dentsitate ertainekoak: Kuartrena, hirigunearen hegoaldean, eta Elorrieta ekialdean. Elorrietari dagokionez, arau subsidiarioek dentsitate apaleko bizitegi-esparru bat aurreikusten dute (A-26; 20,40 etxebizitza/ha), dagoeneko gauzatuta dagoena. Kuartrenaren parte baten gainean, arau subsidiarioek dentsitate apaleko bizitegi-esparru bat mugatzen dute (A-1; 10,77 etxebizitza/ha), eta hori ere egikaritu da; gainerako azalerak urbanizaezin gisa jarraitzen du. Aipatu behar da kokaleku hori ez dagoela bizitegi-hirigunearen jarraian. Ikusi da Eskoriatzak 149 etxebizitzako bizitegi-edukiera duela; hori guztia hiri-lurzoru kontsolidatuaren eta kontsolidatu gabearen artean. Ez du lurzoru urbanizagarririk.

LEINTZ-GATZAGA (a motako arau subsidiarioak 1987).

LPPk hirigune historikoa betetzea eta birgaitzea proposatzen du soilik; arau subsidiarioek ez dute bestelakorik planteatzen. Leintz-Gatzagak 63 etxebizitzako bizitegi-edukiera du.

ARAMAIO (HAPO 2012-2017).

LPPk bizitegi-garapen berrirako bi kokaleku proposatzen ditu, dentsitate ertainekoak, hirigunearen jarraian (Ibarrako hirigunea; Aramaioko nagusia); iparraldean bat eta hegoaldean bestea. HAPOk ez ditu oraindik jaso eta lurzoru urbanizaezin gisa jarraitzen dute. Hegoaldekoak bat egiten du Zalgo landa-auzoarekin; baserriz eta beste bizitegi-eraikin sakabanatu batzuez osatua dago eta Arabako Foru Aldundiak onartutako Landa Guneen Inbentarioak (2009) ez du landagunetzat hartzen. HAPOk 72 etxebizitzako edukiera duen (IB-12; 32,24 etxebizitza/ha) lurzoru urbanizagarriko esparru bat sartu du Ibarraren ipar-mendebaldean, bizitegitarako hiri-lurzoruaren jarraian eta LPPk hirigune kontsolidatu gisa hartzen duenaren parte modura. Ikusi da Aramaiok, bizitegi-garapenerako bi kokapen-aurreikuspenak sartu gabe ere, oraindik 228 etxebizitzako bizitegi-edukiera duela, hori bai, guztiak Ibarran kokatuak.

Debagoieneko LPPk egindako bizitegi-kuantifikazioko aurreikuspenak, indarrean egongo den aldirako, hurrengo taula honetan jasotzen dira:

| UDALERRIA                               | Debagoieneko LPP (2005)     |                  |                              |                  |
|-----------------------------------------|-----------------------------|------------------|------------------------------|------------------|
|                                         | 8 urte<br>GUTXIENEO<br>KOP. | GEHIENEO<br>KOP. | 16 urte<br>GUTXIENEO<br>KOP. | GEHIENEO<br>KOP. |
| ANTZUOLA                                | 273                         | 413              | 363                          | 550              |
| BERGARA                                 | 879                         | 1.404            | 1.169                        | 1.872            |
| ELGETA                                  | 193                         | 317              | 257                          | 423              |
| OÑATI                                   | 1.281                       | 1.698            | 1.704                        | 2.264            |
| ARRASATE-<br>MONDRAGÓN                  | 1.382                       | 1.885            | 1.837                        | 2.514            |
| ARETXABALETA                            | 439                         | 691              | 584                          | 922              |
| ESKORIATZA                              | 292                         | 464              | 388                          | 618              |
| LEINTZ-GATZAGA                          | 48                          | 62               | 64                           | 83               |
| ARAMAIO                                 | 123                         | 218              | 163                          | 290              |
| <b>EREMU<br/>FUNTZIONAL<br/>GUZTIRA</b> | <b>4.910</b>                | <b>7.152</b>     | <b>6.529</b>                 | <b>9.536</b>     |

Udalplan 2019ren arabera, orain dauden etxebizitzak 30.600 dira da, lurzoru urbanizaezinean dauden 2.278 etxebizitzak barne; eta aurreikusten diren etxebizitzak, berriz, 4.329 dira. Udalplan 2006ren arabera, zeuden etxebizitzak 26.865 ziren, eta aurreikusten zirenak 5.336. LPPren indarraldian 4.179 etxebizitza eraikitzeke lizentziak eman dira, Udalplaneko datuen arabera (Udalplan 2006-2019).

| UDALERRIA | Dauden<br>etxebizitzak | Egikaritzeke<br>dauden<br>etxebizitzak | LIZENTZIAK<br>2005-2013 | LIZENTZIAK<br>2005-2018 |
|-----------|------------------------|----------------------------------------|-------------------------|-------------------------|
|-----------|------------------------|----------------------------------------|-------------------------|-------------------------|



|                                           | UDALPLAN<br>2019 | UDALPLAN<br>2019 |              |              |
|-------------------------------------------|------------------|------------------|--------------|--------------|
| ANTZUOLA                                  | 998              | 221              | 65           | 65           |
| BERGARA                                   | 7.240            | 1.040            | 545          | 672          |
| ELGETA                                    | 596              | 193              | 95           | 95           |
| OÑATI                                     | 5.190            | 520              | 853          | 935          |
| ARRASATE                                  | 10.465           | 1.481            | 1.506        | 1.507        |
| ARETXABALETA                              | 3.251            | 374              | 566          | 593          |
| ESKORIATZA                                | 2.013            | 149              | 221          | 227          |
| LEINTZ-GATZAGA                            | 123              | 63               | 0            | 0            |
| ARAMAIO                                   | 724              | 288              | 84           | 85           |
| <b>EREMU<br/>FUNTZIONALAK<br/>GUZTIRA</b> | <b>30.600</b>    | <b>4.329</b>     | <b>3.935</b> | <b>4.179</b> |

Emandako lizentzia kopuruaren arabera (etxebizitza kopurua kontuan hartuta), 2005ean LPP behin betiko onartu zenetik eraikitako etxebizitza kopurua (4.179 lizentzia) LPPk 8 urtera begira ezarritako gehieneko bizitegi-edukieratik azpitik dago. Udalerrri guztiek gordetzen dute bizitegi-edukiera eta LPPk 16 urterako erabakitako urkilaren barruan daude. Antzuola, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzaren kasuan, LPPk ezarritako gutxieneko kuantifikazioaren azpitik daude. Arrasate da azken 15 urte hauetan etxebizitza gehien eraiki dituen udalerria; LPPn aurreikusitako gutxieneko etxebizitza kopuruaren gainetik dago baina esan behar da, hala ere, oraindik beste 1.481 etxebizitzako bizitegi-edukiera duela. Beste muturrean Leintz-Gatzaga dago, non ez den lizentzia bakar bat eman, Udalplaneko datuen arabera. Bizitegi-garapen handiena Planaren indarraldiko lehenengo zortzi urteetan gauzatu da, 3.935 lizentzia eman baitziren guztira (2019ra arte emandako lizentzia guztien % 94); 2013tik hona 244 lizentzia eman dira. Egoera hori homogeneoa da udalerrri guztietan; izatez, Antzuolan eta Elgetan ez da lizentziarik eman 2013tik eta Arrasaten eta Aramaion, berriz, bat bakarra.

### 3.3.3. LAG. Bizitegi-kuantifikazioa: LPPren eta LAGetako aurreikuspenen alderaketa.

Bizitegi-kuantifikazioaren arloko gidalerroei buruzko LAGen 13. artikulua hurrengo hau dio, Lurralde Plan Partzialei dagokienez:

*13.2.f) artikulua. ) Bizitegi-kuantifikazioa Lurralde Plan Partzialetan.*

- 1) Lurralde Plan Partzialetan Eremu Funtzionalako esparruaren barruko udalerrri bakoitzari dagokion bizitegi-lurzuaren eskaintza kuantifikatu beharko da, eta, zehatzago, lurralde-ereduaren osagaia.*
- 2) Lurralde Plan Partzialen kasuan, erabilitako koefizienteak Eremu Funtzionalaren ezaugarri espezifikoetara egokitu ahalko dira. Halaber, Eusko Jaurlaritzak erabilitako koefizienteak egokitu ahalko ditu arauz Autonomia Erkidegoaren esparru orokorraren arabera.*

Hurrengo taulan alderatzen dira LAGek udalerri bakoitzerako ezarritako bizitegi-kuantifikazioa, LPPn egiten diren aurreikuspenekin eta udal plangintzan (Udalplan 2019) egiten direnekin:

| UDALERRIA                                | Kuantifikazioa<br>Debagoieneko LPP (2005) |                     | Kuantifikazioa<br>2019ko LAG<br>(2020-2028) | Aurreikusita<br>ko<br>etxebizitzak<br>UDALPLAN<br>2006 | Aurreikusita<br>ko<br>etxebizitzak<br>UDALPLAN<br>2019 |
|------------------------------------------|-------------------------------------------|---------------------|---------------------------------------------|--------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------|
|                                          | 8 urtera<br>(2013)                        | 16 urtera<br>(2021) |                                             |                                                        |                                                        |
|                                          | GEHIENEK<br>OA                            | GEHIENEK<br>OA      |                                             |                                                        |                                                        |
| ANTZUOLA                                 | 413                                       | 550                 | 318                                         | 262                                                    | 221                                                    |
| BERGARA                                  | 1.404                                     | 1.872               | 708                                         | 150                                                    | 1.040                                                  |
| ELGETA                                   | 317                                       | 423                 | 148                                         | 232                                                    | 193                                                    |
| OÑATI                                    | 1.698                                     | 2.264               | 961                                         | 1.294                                                  | 520                                                    |
| ARRASATE-<br>MONDRAGÓN                   | 1.885                                     | 2.514               | 1.029                                       | 2.147                                                  | 1.481                                                  |
| ARETXABALETA                             | 691                                       | 922                 | 1.020                                       | 672                                                    | 374                                                    |
| ESKORIATZA                               | 464                                       | 618                 | 292                                         | 295                                                    | 149                                                    |
| LEINTZ-GATZAGA                           | 62                                        | 83                  | 21                                          | 63                                                     | 63                                                     |
| ARAMAIO                                  | 218                                       | 290                 | 196                                         | 221                                                    | 288                                                    |
| <b>EREMU<br/>FUNTZIONALA<br/>GUZTIRA</b> | <b>7.152</b>                              | <b>9.536</b>        | <b>4.693</b>                                | <b>5.336</b>                                           | <b>4.329</b>                                           |

LAGek murriztu egin dituzte LPPk eremu funtzionalako udalerri guztietarako etxebizitza berrien arloan egindako aurreikuspenak, Aretxabaletaren kasuan izan ezik. Oraindik udalerri guztiek duten bizitegi- edukiera kontuan hartuta, ikusten da Bergarak, Elgetak, Arrasatek, Leintz-Gatzagak eta Aramaiok LAGetan egiten diren aurreikuspenen gainera dagoen bizitegi-ahalmena dutela.

#### 3.3.4. Bizitegi-ereduaren eta -kuantifikazioaren ondorioak.

- LAGen aurreikuspenek murriztu egin dituzte eremu funtzional osorako bizitegi-kuantifikazioaren zifrak, LPPk ezarritako urkilarekin alderatuta.
- Plangintzan aurreikusitako etxebizitzak buruzko datuek erakusten dute Bergarako aurreikuspenak LAGen kuantifikazioaren oso gainera daudela, eta Elgeta, Arrasate, Leintz-Gatzaga eta Aramaiokoak ere gainera daudela. Gainerako udalerriek –Antzuola, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatza– LAGetan ezarritako kuantifikazioa baino edukiera txikiagoa dute. Plangintza-aurreikuspenen batura, nolana ere, ez da iristen LAGek eremu funtzionalerako egindako guztizko aurreikuspenetara.
- Garapen-erritmoa askoz ere biziagoa izan da LPP indarrean egon den lehen 8 urteetan (2005-2013), 3.935 lizentzia eman baitziren aldi horretan; 2013tik hona, aldiz, 244 lizentzia eman dira. Azken urteetan arlo horretan izan den garapena ikusita, udalerri guztiek behar hainbateko bizitegi-ahalmena dutela irizten zaio.
- Datu horien aurrean ondoriozta daiteke LPPren etorkizuneko berrikuspen batean, berraztertu egin beharko dela proposatutako bizitegi-kuantifikazioa.

### 3.4. Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzorua

#### 3.4.1. LPPren lurralde-eredua eta kuantifikazioa.

LPPren memoriak azaltzen du egiaztatuta dagoela lurraldearen harrera-ahalmen murrizta, eta hainbat ondorio ateratzen ditu; hona horietako batzuk, besteak beste: okupazio estentsiboko enpresak ezartzeko ezintasuna; hirugarren sektorerako joera; Administrazioaren esku-hartzearen beharra; garapen berriko eremuak sortzea, azpiegitura-obra handietako lur-mugimenduen soberakinen ondorioz (adierazten du, halaber, lurralde-eredua desitxuratzen dutela neurri batean, azpiegiturei lotuta daudelako, baina jarraitutasunik gabe, hiriguneetatik aldentuta).

Ahalmenari dagokionez, onargarriak eta indarrean daudela irizten die Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako lurzorua sortzeko Lurralde Plan Sektorialak ezarritako irizpide eta

zehaztapenei, eta LPSren kuantifikazioak erabiliko ditu. LPSren helburuak eta balizko kokapenak ere egokiak direla uste du. Sustapen publikoko hurrengo eragiketa hauek jasotzen ditu:

- Garaia berrikuntza teknologikorako poloa (Arrasate). Ezagutza zientifikoen hornitzaileak (unibertsitateak, teknologia-zentroak) eta berrikuntza-eskatzaileak (enpresetako I+G) elkarretaratzea.
- Garagaltza-Berezao enpresa-parkea (Oñati). Plangintza orokor, bateratu eta integraleko esparru horretan, Unibertsitatearen ezarpen berria lagun dela, kalitate handiko enpresa-parke bat aurreikustea (jarduerari eta paisaia-egokitzapenari dagokienez).
- Jarduera berritzaileen parkea (Eskoriatza). Kokapen estrategikoa (AP-1en korapiloetako batekin lotuta) eta ingurumen-kalitatea (Esteibar-Eskoriatzako bainuetxea).
- Elkoromuño-Ipiñarri garraio-zerbitzuen zentroa (Bergara). AP-1 autobidearen eta Beasain-Durango ardatzaren arteko lotuneari atxikitako logistika eremua.
- Eskualde-eskalako poligono berriak. Beasain-Durango ardatzaren, eta, zehazki, Deskargako eta Kanpazarreko tunelak eraikitzeak lanen garapenerako jarduketak osagarriak: Deskarga (Antzuola), Deskargako tunelari eta Bergaraldeko zerbitzuari lotua; Zaraa/Montzon (Arrasate), Kanpazarreko tunelari eta Leintz bailarako zerbitzuari lotua.
- Eskualdeko industrialdea (Arrasaten). Garagartza bailara.
- Garagartza bailararen hedapena. Emaldi eta Ekutioko jarduketak (Ekutio, Olandixoko tunelari lotuta).
- Baso- eta egur-hondakinen balioztatze energetikorako instalazioa. Baso-hondakinak birziklatzea; nekazaritza-inguruneari lotutako balizko jarduera ekonomikoekin izan dezake lotura.

Lurralde-ereduari erantzuteko lurzorua prestatzeko dagokionez, LPPk hiru jarduketa-maila bereizten ditu (60. artikulua): eremu funtzionala osorik hartuta, lurralde-esparruak eta udalerriak.

Eremu funtzional osoari begira, bi esku-hartze aurreikusten ditu, eremu funtzionalaren premiei erantzuteko (eta gainditzeko). Ekimen mistoa (publiko-pribatua): Garaia berrikuntza teknologikorako poloa Arrasaten (50 ha); Garagaltza-Berezao enpresa-parkea Oñatin (40 ha).

Lurralde-esparruen arabera, honako esku-hartze estrategiko hauek ditu eskura:

- BERGARALDEA: Elkoromuño-Ipiñarriko Garraioaren Zerbitzu Zentroa (45 ha) (Bergara); San Joanen hedapena (30 ha) (Bergara); Deskargako poligonoa (25 ha) (Antzuola).
- LEINTZ BAILARA: Esteibarko Jarduera Berritzaileen Parkea (Eskoriatza); Zaraa-Montzon poligonoa, Garagartzako industrialdea, eta Emaldi-Ekutio Arrasaten.

Udalerriei dagokienez, LPSrekin bat etorritik, honako kategorizazio hau egiten du haien ezaugarrien, potentzialtasunen eta proposatutako lurralde-ereduaren arabera:

- «Lehentasuneko interesekoak» (Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza eta Oñati). kontsolidatutako lurzoru okupatuak hobetzeko politika proposatzen du; zaharkituta geratu diren industria-eremuak birmoldatzea (enpresak lekuz aldatu daitezen erraztuz eta espazio hutsak jarduera-eremu berrietarako berreskuratzea sustatuz); kalifikazio industrialak duten lurzoru okupatu gabeak garatzea (lehendik dauden poligonoak bultzatzea, desblokeatzea eta sustatzea); lurzoru berrien eskaintza publikoa sortzea, Planak interes estrategiko orokorrekoak jotzen dituen puntuetan.
- «Garapen apalekoak» (Aramaio eta Leintz-Gatzaga). Udalerri horien plangintzan hiri-izaera izango duten jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren neurriak mugatzea proposatzen du. Tailerrei eta tokiko enpresa txikiei leku egingo dieten hiri-eremu txikiak onartu ahal izango dira (lurzoruaren gehieneko azalera: 3 ha) eta lurzoruaren garapen berriak baimenduko dira, ekonomia sustatzeko eragiketetan esku-hartze publikoei harrera egin ahal izateko.

Gutxi gorabeherako zenbateko hauek planteatzen ditu (246 ha eremu funtzional osorako), planifikatutako lurzorua edozein dela ere:

- BERGARALDEA (107 ha). Antzuola: Deskarga 25ha (Industrialdea); Bergara: Elkoromuño-Ipiñarri 45ha (Aldundia/Ekimen pribatua); San Joanen hedapena 30ha (Ekimen pribatua); Elgeta: Pagatzaren hedapena 7ha (ekimen pribatua).



- OÑATI (40 ha). Garagaltza-Bereza 20 ha (instituzio artekoa); Oñatiko bailara 20 ha (ekimen pribatua).
- LEINTZ BAILARA (99 ha). Arrasate. Garaia 50ha (instituzio artekoa), Zaraa/Montzon 20 ha (industrialdea), Emaldi-Ekutio 24ha (ekimen pribatua/ industrialdea); Leintz-Gatzaga: Arlaban 5ha (instituzio artekoa); Aretxabaleta, Eskoriatza eta Aramaio: ez da beste jarduketarik plangintzan aurreikusita daudenez kanpo.

Gainera, kontuan hartzekoak dira bizitegi-erabilerarako birmoldaketa-jarduketa hauek: Antzuola, Hilaturas fabrika zaharra eta Lizarraga ibarra (Elay eta Camacho); Bergara, San Antonio kotoi-fabrika; Elgeta, Berraondokua eta Zabala Anaiak; Arrasate, Zerrajera eta Gelma-Gamei; Aretxabaleta, Beroa-Zerrategia; Eskoriatza, Santa Marina.

Merkataritza-jarduerari dagokionez, hiri-merkataritzaren garapena proposatzen du, eskualdea orekatzeko helburuari estuki loturik. Bizitegi-ezarpenak Oñati eta Bergaraldeko azpieskualdeetan lehenetsiko dira, Leintz bailararen kaltetan. Deszentralizazio handiagoa ekarriko duela irizten zaio, azalera handiko merkataritzan eraginik izan gabe. Arrasaten hipermerkatu bat ezarrita egoteak alferrikakoa egiten duela uste da jarduera horretako beste proposamen bat; agian komeni da hura handitzeko aukera aurreikustea, bai eta aisialdiko jarduerekin osatzea ere.

#### 3.4.2. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintzaren kuantifikazioa. LPPren zehaztapenen gauzatze maila. Alderaketa UDALPLANekin.

LPP onartu zen momentuan (2005), 592,15 ha lurzoru kalifikatu zeuden guztira eremu funtzionalean (378,62 ha okupatuta eta 213,53 ha hutsik), Udalplan 2006ren arabera. LPPk guztira 246 ha-ko lurzoru berria proposatzen du eremu funtzional osorako, dagoeneko planifikatuta dagoen lurzorua kontuan hartu gabe. Udalplan 2019ren arabera, jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruaren azalera osoa 614,95 ha-koa da; beraz, 36,65 ha-tan hazi da lurzoru kalifikatua LPP behin betiko onetsi zenetik.

| UDALERRIA                         | LPPk jasotako zifrak (ha) |               |               |                        | Udalplan 2019 (Ha) (**) |                  |               |
|-----------------------------------|---------------------------|---------------|---------------|------------------------|-------------------------|------------------|---------------|
|                                   | Kalifikatua               | Okupatua      | Librea        | LPPren proposamena (*) | Azalera kalifikatua     | Azalera okupatua | Azalera hutsa |
| ANTZUOLA                          | 38,23                     | 6,78          | 31,45         | 25                     | 13,76                   | 9,79             | 3,97          |
| BERGARA                           | 134,43                    | 129,18        | 5,25          | 75                     | 192,48                  | 123,36           | 69,12         |
| ELGETA                            | 23,58                     | 12,78         | 10,80         | 7                      | 21,79                   | 18,62            | 3,17          |
| <b>Bergaraldea</b>                |                           |               |               | <b>107</b>             | <b>228,03</b>           | <b>151,77</b>    | <b>76,26</b>  |
| OÑATI                             | 84,64                     | 73,12         | 11,62         | 40                     | 99,14                   | 83,94            | 15,20         |
| <b>Oñati</b>                      |                           |               |               | <b>40</b>              | <b>99,14</b>            | <b>83,94</b>     | <b>15,20</b>  |
| ARRASATE-MONDRAGON                | 230,43                    | 140,12        | 90,31         | 94                     | 215,47                  | 113,92           | 101,55        |
| ARETXABALETAK                     | 33,18                     | 23,68         | 9,50          | ---                    | 30,74                   | 23,01            | 7,73          |
| ESKORIATZA                        | 32,19                     | 18,94         | 13,25         | ---                    | 33,79                   | 22,85            | 10,94         |
| LEINTZ-GATZAGA                    | ---                       | ---           | ---           | 5                      | 0,00                    | 0,00             | 0,00          |
| ARAMAIO                           | 1,62                      | ---           | 1,62          | ---                    | 7,78                    | 4,27             | 3,51          |
| <b>Leintz Bailara</b>             |                           |               |               | <b>99</b>              | <b>287,78</b>           | <b>164,05</b>    | <b>123,73</b> |
| <b>EREMU FUNTZIONALAK GUZTIRA</b> | <b>578,30</b>             | <b>404,60</b> | <b>173,80</b> | <b>246</b>             | <b>614,95</b>           | <b>399,76</b>    | <b>215,19</b> |

(\*) Zenbateko orientagarriak. Aramaion ez da berariazko jarduketarik proposatzen, baina 3 ha lurzoru aurreikusi ahal izango dira jarduera ekonomikoetarako, «garapen apaleko» udalerrri gisa.

(\*\*) Arrasate (Udalplan 2019); 20,75 ha sektoretan gabeko lurzoru urbanizagarriak dira (Zaraa-Montzon)

#### 3.4.3. Udal-plangintza LPPren lurralde-eredura egokitzea.

Debagoieneko LPPk udalerrri bakoitzerako egiten dituen proposamen zehatzak aztertu dira, bai eta alderatu ere Udalplan 2019 deituan udal-plangintza bakoitzean jasotakoarekin.

ANTZUOLA (b motako arau subsidiarioak 2003-2005).

LPPk industria-garapen berri gisa egiten duen proposamen bakarra Deskargako esparrua da (25ha), zeina ez baita plangintzan sartu. Industrialdeak bizitegi-zonara birmoldatzeari dagokionez (Hilaturas

eta Lizarraga-Elay inguruneak), gaur egun ez dira oraindik gauzatu, eta, Lizarraga-Elayren kasuan, esan behar da plangintzak industria-esparru gisa mantentzen duela. Lizarraga-Elayn (A16-A17) azalera okupatua 3,71 ha-koa da, eta plangintzako azalera hutsa, berriz, 3,97 ha-koa.

#### BERGARA (HAPO 2009).

LPPk jarduera ekonomikoetarako garapen berriko lehentasunezko eremu bat proposatzen du San Joanen, lehendik dagoenaren mendealdean (handitzeko), eta ekonomia- eta zuzkidura-jardueretarako beste bat Elkoromuño-Ipiñarrin (Garraioaren Zerbitzu Zentroa). San Joanen handitzea, parte batean, plangintzan sartuta dago; zati hori egikarিতা dago jada. Gainerakoa lurzoru urbanizaezinean mantentzen da. Era berean, San Joango hiri-lurzoruaren azalera bat lurzoru urbanizaezinerara gehitu zen berriro (2012). Aipatzekoa da, indarrean dagoen HAPOren aurretik, plangintzak aldaketa bat egin zuela jarduera ekonomikoetarako alde hori zabaltzeko, LPPk proposatutako kokapenetik kanpo zegoen eta ipar-ekialdetik mugakide duen lurzoru urbanizaezin bat gehituta. Egungo HAPOko 2. sektoreaz ari gara (Larramendi); eremu hori egikaritzen hasita dago eta 28,33 ha lurzoru bete gabe ditu oraindik. Elkoromuño-Ipiñarrin kokapenari dagokionez, HAPOk berorren zati bat jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri gehitu zuen (S-1 Kukubaso-Ipiñarri); baina ez du garapenik izan. Industrialdea zena bizitegitarako birmoldatzeari dagokionez (San Antonio kotoi-fabrikaren ingurunea), HAPOn hartu da barnean eta hasita dago egikaritzen (industria-eraikina eraitsi da, baina ez da bizitegi-garapena hasi). Halaber, LPPk hiri-garapenik gabeko esparru bat proposatzen du («erreserbatutako beste espazio batzuk») udalerraren iparraldean, Mekolalde ibarrean. Etorkizuneko garapenetarako erreserbatutako lursailak dira (LPPk ez die kalifikazio jakinik zehazten, 56. artikulua). Memoriak honako hau dio: *«Espazio ordeka bakarra izateak duen garrantzia kontuan hartuta, epe luzera aztertu beharko dira izan ditzakeen aukerak»*. HAPOk jarduera ekonomikoetarako esparru urbanizagarri bat gehitu du (5. sektorea, Mekolalde) erreserba horretara; ez da oraindik garatu.

#### ELGETA (b motako arau subsidiarioak 2004-2005).

LPPk bi kokagune proposatzen ditu garapen berriko lehentasunezko eremutarako. Lehenengo Erreka, jada beteta dagoen Pagatzako poligonoa handitzeko; zati bat plangintzan sartuta dago (IV. sektorea), eta ia gauzaturik dagoeneko (1,64 ha geratzen dira hutsik). Proposatzen duen beste kokalekua Eibar eta Zaldibarrekiko mugan dago, esandako bi herri horien arteko mugaren luzetara kokatuta dagoen jarduera ekonomikoetarako zerrenda baten jarraipen modura; plangintzan sartuta dago osorik (III. sektorea), baina ez da oraindik garatu. Industrialdea bizitegi-zonara birmoldatzeari dagokionez (Berraondokua/Zabala zona, oraindik ez dira egikaritu, eta ekialdeko erdiaren kasuan (Berraondokua), plangintzak industria-zona gisa mantentzen du oraindik.

#### OÑATI (b motako arau subsidiarioak 2005-2007). Berrikuspena izapidetzen; HAPOren aurrerapen-fasea.

LPPk proposatzen du Oñati-San Prudentzio ibar-korridorea betetzea, zeharkako haranak erabili gabe, ulertzen baita ez direla okupatu behar, eta proposatzen du jarduera ekonomikoetarako garapen berriko lehentasunezko eremu bat kokatzea ibar-korridore horretan hedatzen den hirigune kontsolidatuko orbanaren mendealdetik. Proposatzen ditu, halaber, Garagartza-Berezaoko enpresa-parkea eta hirugarren sektorera bideratutako hiri-erlaldaketa eremua CEGASAn. Bailara guztiz betetzeari dagokionez, plangintzan jasota dago lurzoru horien parte handi bat, eta esan behar da horietako gehienak beteta daudela jada. Hala ere, plangintzan ez da lurzoru berririk aurreikusi garapen berrietarako kokapen gisa; horietako batzuk LPP onartu aurretik ere sartuta zeuden (bailarako esparru guztiak kontuan hartuta, Udalplan 2019n 12,72 hektareako azalera hutsa dago). Garagartza-Berezaoko enpresa-parkeari dagokionez, industria- eta bizitegi-lurzoru batzuk egikaritu dira, nahiz eta ez den LPPren planteamenduaren arabera garatu; eta CEGASaren erlaldaketari dagokionez, lehengo industria-kalifikazio berarekin jarraitzen du.

#### ARRASATE (HAPO 2016).

LPPk lau kokaleku proposatzen ditu jarduera ekonomikoaren garapen berriko lehentasunezko eremutarako: Garaia berrikuntza-poloa; Emaldi-Ekutio eta Zaraa-Montzon industria-ezarpenetarako, eta Zabaleta/Garratz merkataritza- eta aisialdi-zentrotarako (hiri-erlaldaketako eragiketa batean). Garagartzako industrialdeari ere estrategikoa irizten dio. Jarduketa horiek HAPOn sartuta daude, Ekutiokoa izan ezik, zeina urbanizaezin gisa sailkatuta baitago. Garaia Berrikuntza Teknologikorako poloari dagokionez, berrikuntzarekin lotura duten jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri gisa mantentzen da; partzialki garatuta dago, Unibertsitatea eta hainbat enpresa teknologiko ezarri baitira, nahiz eta neurri handi batean okupatu gabe dagoen (38,32 ha hutsik). Emaldikoak garatu gabe jarraitzen du. Zaraa-Montzonek jarduera ekonomikoetarako erabilerarekin jarraitzen du, baina

sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarri gisa, Beasain-Durango autobia egikaritzetik sor daitezkeen balizko lur-soberakinak kontuan hartuta, tarte horretan oraindik egikaritu gabe baitago. Zabaleta Garratzen kasuan, berriz, Zabaletak jarduera ekonomikoetarako erabilerarekin jarraitzen du, nahiz eta oraindik azalera hutsa eduki (2,17 ha), eta Garratz –estazio elektriko batek okupatzen du– azpiegituren sistema orokor gisa kalifikatu dute. Garagartzaren kasuan, ia guztiz beteta dago (Ibarreta esparrua, 1,55 ha hutsik). Bestalde, jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri gisa mantentzen dira aurreko plangintzan jada mugatuta zeuden hurrengo esparru hauek, nahiz eta LPPn jasota ez dauden kontsolidatutako hirigunearen zati gisa edo garapen berrietarako esparru modura: San Josepe eta Kobateko harrobi zaharren azalerak, Meazterreka zona eta Olandiano Berri eremua (azken hori aipatutako kontsolidatutako hiriguneari jarraipena ematen diola). Industrialdea bizitegi- eta zuzkidura-erabilerako zona mistora birmoldatzeko proposamenari dagokionez (Unión Cerrajera-Zabalgunea-Gelma Gamei), parte bat garatuta dago jada; baina Zalduspek jarduera ekonomikoen kalifikazioari eusten dio, bai eta Gelmak eta Gameik ere. Orotara, 66,14 ha lurzoru dago hutsik; 20,75 ha Zaraa-Montzoneko sektorizatu gabeko eremuari dagozkio.

ARETXABALETA (b motako arau subsidiarioak 2001).

LPPk jarduera ekonomikoetarako garapen berriko lehentasunezko eremurako kokagune bat proposatzen du gunearen iparraldean. Arau subsidiarioek azalera horren zati batean jarduera ekonomikoetarako lurzoruak mugatzen dituzte, horien artean oraindik garatu ez den esparru urbanizagarri bat (hutsik jarraitzen du; 5,57 ha). Nabarmentzekoa da, bestalde, plangintzan egindako aldaketa batek (2012) kokapen horren azaleraren zati bat bizitegi-lurzoruan sartu zuela (A-4b); horrela, bada, bizitegitarako lurzoru gisa onartu zen, hiri-bilbearen jarraipen modura. Industrialdea bizitegi-zonara birmoldatzeko proposamenari dagokionez (Beroa/Zerrategia zona), gaur egun ez da gauzatu ez Beroako zatia, ez Zerrategikoa, eta Beroaren kasuan, plangintzak oraindik industrialde modura mantentzen du. Azkenik, plangintzak hirigunetik urruti dauden bi sektore sailkatzen ditu, oraindik hutsik daudenak eta LPPk aurreikusten ez dituenak (34 sektorea eta 36 sektorea; 1,63 ha eta 0,53 ha dituzte hutsik, hurrenez hurren).

ESKORIATZA (b motako arau subsidiarioak 2000-2002).

LPPk bi kokaleku proposatzen ditu jarduera ekonomikoetarako garapen berriko lehentasuneko eremu gisa: bat erdigunearen iparraldean (Esteibar), bestea hegoaldean (Aingeru); Esteibar, jarduera berritzaileen parke bat ezartzeko asmotan. Biak jasota daude plangintzan. Esteibarren, Esteibar sektorea egikaritzeke dago, 3,34 ha bete gabeekin. Aingerun, Aingeru Guarda sektorea gauzatzea falta da, 7,60 ha baititu hutsik. Industrialdea bizitegi-zonara birmoldatzeko proposamenari dagokionez (Santa Marina), arau subsidiarioetan jasota badago ere, egun oraindik gauzatu gabe dago.

LEINTZ-GATZAGA (a motako arau subsidiarioak 1987).

LPPk nekazaritza-ingurunearekin lotura duten jarduera ekonomikoetarako esparru bat ezartzea proposatzen du Arlaban aldean; horixe besterik ez. Plangintzak ez du jasotzen udalerrian jarduera ekonomikoetara bideratutako esparrurik.

ARAMAIO (HAPO 2012-2017).

LPPk ez du jarduera ekonomikoetarako lurzoru berririk proposatzen, eta garapen apaleko udalerrri gisa kategorizatuta dagoenez, tailerrak eta tokiko enpresa txikiak hartzeko egokiak diren hiri-eremu txikiak onartu ahal izango dira, gehienez 3 ha-ko azalerakoak (LPPren 63.4 artikuluko baldintzak; 97ko LAGen 9. kapituluko 6.5 gidalerroa; Jarduera Ekonomikoen LPSko 7. artikulua) eta udal plangintzan zehaztu beharko direnak. HAPOn proposamenak industrialde berri bat proposatzen zuen Ibarako bizigunearen iparraldean, LPPn hiri-garapenik gabeko korridore gisa planteatutako kokaleku baten gainean, eta ez zen barnean hartu. Hala, plangintzan jasota dauden bakarrak dira Otxandioko plangintzan eta «Limitadua» izeneko enklabearen aurreikusitako jarduera ekonomikoetarako eremuak, 3 hektareako azalera baitago bete gabe.

#### 3.4.4. Ondorioak jarduera ekonomikoen arloan.

- LPPk proposatutako lurzoru gehienak udal plangintzetan jasota daude, hurrengo esparruok salbuetsita: Deskarga (Antzuola, 25 ha), Elkoromuiño-Ipiñarri (Bergara, 45ha), Arlaban (Leintz-Gatzaga), Ekutio (Arrasate) eta Garagartza-Berezao (Oñati). Horien berrikuspenean egin behar da.
- Udalplanen arabera, 215,19 ha-ko azalera dago hutsik, eremu funtzionala osoan hartuta. Leintz Gatzagan ez dago industria-lurzorurik eta Aramaion ere ez, «Limitadukoa» izan ezik. Gainerako

udalerriek badute jarduera ekonomikoetarako lurzorua, hori bai, proportzio eta egoera desberdinetan bideragarritasunari dagokionez: lurzoru maldatsuak edo uholdeak izateko arriskua dutenak, sarbideak, enpresen jabetzako azalerak, erreserba gisa hutsik mantentzen dituztenak, etab.

- Ikusi da beharrezkoa dela inbentario zehatz bat izatea kontsolidatuta eta hutsik dauden industria-lurzoruen baldintzei buruz, abiapuntu gisa erabiltzeko.

### 3.5. LAG. Hiri-berroneratzea

LAGen memorian honako hau adierazten da: *Eraikin-parkea pixkanaka zahartu egin da, eta eraikuntzak nahiz hiri-ingurunea egokitu egin behar dira gaur egun sortzen diren ingurumen-arloko eta jasangarritasuneko erronka berrietara; hortaz, hiri-berroneratzeko edo -berrikuntzako eragiketak egin behar diren jardun-esparruetan eskala aldatzea proposatu da. Hartara, jardun-unitate oso mugatu batean tokiko esku-hartze bat egin nahi bada, zenbait kasutan, auzo osoa edo hirigune zabalak eta aldirietako ingurunea hartu behar dira eraginpean.*

Ildo horretan, LAGek, araudiaren 10.1. artikuluan, espazioa antolatzeke eta erabiltzeko gidalerro lotesleen barruan, honako hau zehazten dute:

*10.1. artikulua.- Lurralde Plan Partzialetan berroneratzeko espazioak zehaztuko dira, erabat degradatu daitezen saihesteko, edo erabat edo zati batean beste erabilera baterako berreskuratzeko. Halaber, ondorio horietarako garatu beharreko programak eta horiek gauzatu ahal izateko babes-neurriak definituko dira. Edozein kasutan, Udalak izango dira, beren planen bidez, eremu horiek zedarrituko dituztenak.*

Zaharkitutako eta kongestionatutako hiri-bilbean txertatua dauden industria-esparruen hiri-birmoldaketa da LPPren lehentasunezko helburuetako bat; horretarako, orain arteko industria-erabilerarako esparru jakin batzuk zehazten ditu, bizitegi-erabilera, hirugarren sektoreko erabilera, zuzkidura-erabilera edo bizitegi- eta zuzkidura-erabilera mistorako birmoldatzeko.

### 3.6. LAG. Hiri Hazkundearen Perimetroa

Hiri-hedapeneko prozesuei muga fisiko maximo bat ezartze aldera, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-jasangarritasuneko irizpideekin bateragarria eta dagoeneko urbanizatuta dauden eremuak birdentsifikatzeari eta berritzeari lehentasuna emango diona, LAGek hiri-hazkundearen perimetroa kontzeptua definitu dute. Perimetro hori mugatzeko, 11. artikuluan, «*Hiri-hazkundearen perimetroari loturiko gidalerroak*» deritzonean, honako zehaztapen hauek ezartzen dira, besteak beste:

*11.1. artikulua.- Lurralde-plangintza partzialerako gidalerroak.*

- a) *Lurralde Plan Partzialetan hiri-hazkundearen perimetro bat proposatzea, udal-planek egokitu ahaliko dutena eta udalerrri guztien bizitegitarako eta jarduera ekonomikorako eskariak kontuan hartuko dituen.*
- b) *Hiri-hazkundearen perimetroa proposatzean, indarreko Lurralde Plan Partzialetan definitzen diren Bizitegitarako Garapen Berrietarako edo Jarduera Ekonomikoetarako Eremu Lehenetsiak egokitzea.*
- c) *Hiri Hazkundearen Perimetroa proposatzea egungo hiri-orbanaren morfologia, inguruko lursailen ezaugarri fisikoak eta ekologikoak, eta hazkunde-itxaropenak aintzat hartuta. Horren harira:*
  - 1) *Hiri Hazkundearen Perimetroa definitzeak ahalbidetuko du hiria lehendik dauden kokagune isolatuekin integratzeko. Lehendik dauden edo aurreikusita dauden garraio kolektiboko sistemekin bat datozen hazkunde-prozesuak bideratzeko aukera ere emango du.*
  - 2) *Eraldatze Ardatzetan barne hartutako udalerrietan, Hiri Hazkundearen Perimetroaren mugapena aipaturiko ardatz horiek eratzeraz eta kontsolidatzeraz bideratuko da, guneen arteko lurralde-hutsuneak babestuz eta zeharkako konexio ekologikoa indartuz.*
  - 3) *Hiri Hazkundearen Perimetroaren kanpoko hiri-aldiriko ingurunean ez dago bilduta inguruaren hirigintza-okupazioa beharrezkoa denik LPPren barruan. Lurzoru urbanizagarriko esparruak izanez gero, hirigintza-plangintza berrikuspenean erabakiko da esparruari landa-kalifikazioa ematea edo bere adskripzioa atxikiko duela justifikatzea hirigintza-hedapeneko zona berriei dagokionez.*
- d) *Hiri Hazkundearen Perimetroan ezingo dira sartu Lurralde Antolamenduaren Gidalerro hauetako Ingurune Fisikoaren Gidalerroan xedatutakoaren arabera hirigintza-aldaketa debekatuta duten lursailak.*
- e) *Hiri Hazkundearen Perimetroa hiri-ehunaren inguruan finkatzea.*

LPPren proposamen batek garapen berriko lehentasunezko eremuetara bideratzen ditu garapen berriak, nahiz eta LAGetan ezarritako gidalerroek adierazten dutenaren arabera berrikusi beharko diren;

gainera, orografia malkarreko lurraldea izanik, hiri-hazkunderen perimetroaren definizioak berebiziko garrantzia hartzen du.

#### **4. PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA, ETA BALIABIDE TURISTIKOAK**

##### **4.1. Paisaia**

###### **4.1.1. LPPk proposatutako eredua**

LPPn paisaiari ematen zaion trataera natura-ondareari lotuta dago, zeinari paisaia-balioa aitortzen baitzaio, babestu beharreko balioetako bat den aldetik. Beraz, natura-esparruak babesteak paisaia babestea dakar berarekin.

###### **4.1.2. LAG eta LPP**

LAGetan zehazten da paisaiak erreferentzia izan behar duela lurraldearen antolamenduan, eta modu integralean hartu behar dela kontuan, paisaia bikainak eta arruntak aintzat hartuz, kalteberenak babesteko eta degradatuak lehengoratzeko neurrien bitartez. Horregatik, paisaiaren arloan, honako hau da LAGen helburuetako lehena: *Lurralde- eta hirigintza-plangintzako bitartekoak landu eta garatzeko prozesuetan paisaia txertatzea*. Eta 21. artikuluko 10. apartatuan, «*Paisaia arloko gidalerroak*» izenekoa, honako hau adierazten da:

*21.10. artikulua.- Lurralde Plan Partzialetan beren Eremu Funtzionalari eta eragin-eremuari dagozkien paisaia-zehaztapenak bildu beharko dira, paisaia kudeatu, babestu eta antolatze dagozkion tresnen (Paisaiaren katalogoak adibidez) ondorio direnak.*

Ildo horretan, ez da oraindik garatu Debagoieneko eremu funtzionalerako Paisaiaren Katalogo bat, eta planteatu beharko litzatekeen zerbait da, Paisaiaren Zehaztapen espezifiko batzuk LPPn jasotzearen, gaiari buruzko azterketa xehatu baten ondorioz.

##### **4.2. Kultur ondarea**

###### **4.2.1. LPPk proposatutako eredua**

LPPk helburu ukiezin gisa planteatzen du nortasun propio berri bat eraiki beharra, dauden balio kulturaletan oinarrituta, eta, horrekin batera, gizarte osoarentzat balio garrantzitsuak diren «identitateak» kontserbatzeko premia aldeztu du, landa-munduaren kasuan, horiek galtzeak, hain zuzen ere, eskualdearen esentziari berari eragingo liokeelako. Beraz, kultura-ondarea, maila guztietan, LPPren zeharkako babesaren xede da.

LPPk zona arkeologiko gisa markatzen ditu hainbat esparru, LAGetan edo Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen babesean jasota daudelako, eta zona horiei aplikatzeko araubide bat ezartzen du, berorien babesa bermatze aldera.

###### **4.2.2. LAG eta LPP**

Kultura-ondareari dagokionez, nabarmentzekoa da, 2019. urtean, LAGak onartzeaz gainera, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea ere onartu zela. Lege horretan, ondasun kultural, higiezin, higigarri eta materialen tipologiak definitzen dira. Ildo horretan bertan, LAGek, kultura-ondarearen arloko gidalerroen artean, honako hau adierazten dute:

*22.1. artikulua.- Lurralde Plan Partzialetan euskal kultura-ondarea bere osotasunean bildu behar da, tipologien arabera egituratuta: kultura-ondare materiala (higiezina eta higigarria) eta kultura-ondare immateriala.*

LPP legera egokitu behar da eta dagokion lurraldeko kultura-ondarea adierazitako tipologien arabera egituratu behar da.

##### **4.3. Natura Ondarea**

###### **4.3.1. LPPk proposatutako eredua**

Natura-ondarea LPPren zutabeetako bat da, ingurune fisikoa antolatzeke orduan, eta babestu edo berreskuratu beharreko espazioen erregulazioan zentratzen da, gainerako lurraldearen erregulazioa hirigintza-plangintzaren esku utzirik. Horregatik, honako hauek dira lurralde-ereduaren osagaiak: *«Natura-intereseko eremuak - Nekazaritza-intereseko eremuak - Interes hidrologikoa duten eremuak - Interes geologiko-geomorfologikoa duten eremuak - Hobetu eta/edo berreskuratu beharreko eremuak - eta- Gainerako lurraldea».*

Babestu edo oneratu beharreko eremu bakoitzerako, LPPk ekintza positiboko neurri batzuk ezartzen ditu. Zentzu horretan, natura-intereseko eremuen kasuan, arauen irismena iragankorra izango dela adierazten du, eta arau horien zehaztapenak ordeztuko dutela dagokion NBAP behin idazten denean. Interes hidrologikoa duten eremuen antolamendu xehatuari dagokionez, EAEko Ibai eta Erreka Ertzen Lurralde Plan Sektoriala izango da aplikatzekoa.

#### 4.3.2. LAG eta LPP

Natura-ondarea, LAGen memorian aitortzen den moduan, osagai biotikoek (biodibertsitatea) eta abiotikoek (geodibertsitatea) osatzen dute. Bi osagaiak egun lurraldean dauden habitat eta espezieen osaera sortzen dute. Bestetik, natura-ondareak zenbait ingurumen-ondasun eta -zerbitzu sortzen ditu gizakiontzat, gure ongizatea hobetzeko aukera emanez.

Hori aintzat hartuta, natura-ondareari buruzko LAGetako lehen helburua honako hau da:

*1.- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan natura-ondarea modu integralean sartzea, ekosistemen eta horien osagai guztien babesa sustatuz.*

Irizten zaio LPPk egiten duen natura-ondarearen trataera bat datorrela LAGek arlo horretan adierazten dituzten gidalerroekin.

#### 4.4. **Baliabide Turistikoak**

##### 4.4.1. LPPk proposatutako eredia

LPPk aitortzen du turismo-ekipamenduak defizitarioak direla eremu funtzionalean, eta honako hau proposatzen du: *«hotel-ekipamendua sustatzea (aldaera tipologiko guztietan, hotela, egoitza, kanpina...) Garagaltza – Berezaio zonan (Oñati) horretarako erreserbatutako espazioetan, hotel-erabilera lurraldera iristeararekin loturik. Atal horretan Gaztainuzketako (Leintz-Gatzaga) landa-ostatuaren multzoa dago, zeinak handitu egin beharko lukeen gaur egun duen eskaintza eta aisialdiko ordezkoko beste elementu batzuekin osatu behar lituzkeen egungo instalazioak».*

##### 4.4.2. LAG eta LPP

LAGetan, Turismo Jasangarriaren Mundu Gutunak dioen moduan, turismoa lehen mailako jarduera ekonomikotzat jasotzen da, eta eraginkortasunez, desparekotasuna murrizten eta gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzen lagundu behar du. Gainera, turismoaren garapenak egungo baliabideak gorde beharko ditu etorkizuneko belaunaldientzat, eta gure ondarea zaindu eta osotasuna ziurtatu. Helburu horrekin, baliabide turistikoaren arloko gidalerroek, besteak beste, honako hauek adierazten dituzte:

*24.3. artikulua.- Lurralde plan partzialari dagokionez:*

- a) Lurralde-plangintza partzialaren Lurralde Ereduan, Eremu Funtzional bakoitzean dauden baliabide turistikoaren antolamendua integratzea.*
- b) Lurralde Plan Partzialetatik Baliabide Turistikoaren LPSean bildutako aurreikuspenak ongi txertatzeko lana koordinatzea, baliabide naturalen eta ingurumenaren babesarekin eta antolamenduekin eta lurraldearen erabilera iraunkorarekin bateragarri direla bermatzeko moduan.*

Turismoa baliabide gisa tratatzea ez dago jasota LPPn; beraz, horren berrikuspenean egiten denean, LAGetan adierazten den antolamendua gauzatu beharko litzateke.

## 5. **BALIABIDEEN KUDEAKETA JASANGARRIA**

Arrasate-Bergarako (Debagoiena) eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partzialak bere gain hartu eta bere lurralde-ereduan sartu ditu Administrazioako sailtako plan eta proiektu guztiak, hornidurari, saneamenduari, hondakin solidoen tratamenduari, uholdeen prebentzioari eta energia- eta telekomunikazio-azpiegiturei dagokien guztian.

## 5.1. Ura

### 5.1.1. LPPk proposatutako eredua

Ingurune fisikoa antolatzeko helburu espezifikoaren barruan, LPPk honako hau adierazten du:

*... hurbilpen bat egitea Debagoieneko eremu funtzionaleko ingurune fisikora, berarekin duten zuzeneko edo zeharkako erlazioetatik espazioaren erabilera –eta, beraz, lurralde-antolamendu osoa– baldintzatu dezaketen aldagai esanguratsuenen azterketatik abiatuta. Azken batean, intereseko elementuak dira.*

*Fase honetan kontuan hartu diren aldagaiak hauek dira: landaredia, baliabide hidrologikoak, lurzoruen gaitasun agrologikoa eta Debagoieneko eremu funtzionaleko lurraldearen balio geologiko-geomorfologikoak, batez ere...*

LPPk interes hidrologikoa duten eremuen kategorian sartzen ditu lurgaineko urak (eremu funtzionaleko ibilguak eta berorien babes-zerrendak, Lurralde Plan Sektorialean adierazten direnak), lurpeko urak (akuiferoen babesa) eta Hezeguneen LPSn adierazitako esparruak. Aipatutako guztiak babestu beharreko eremu gisa jasotzen dira, eta LPPk, aipatutako plangintza sektoriala zuzenean aplikatzeaz gainera, erabilera-erregulazio murriztaile bat zehazten du, babes-neurri gehigarri gisa.

### 5.1.2. Uholde-arriskuaren kudeaketa. LPS, Ibaiak eta Errekak.

Ibilgutako ertzen antolamendua EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSren esku uzten da; horrek esan nahi du dokumentu horretara igortzen dela eremu funtzionalaren uholde-arriskuaren kudeaketa ere.

### 5.1.3. Hornidura eta saneamendua.

Bestalde, LPPk honako hauek aipatzen ditu uraren zikloari dagozkion elementu nabarmenen edo lurraldean eragin handiena dutenen artean:

- Epelen (Arrasate) eta Mekolalden (Bergara) hondakin-uren araztegiak instalatzeko aurreikuspenak.
- Urkulu, Leintz-Gatzaga eta Albitxuko edateko uren araztegiak.
- Olateko etorkizuneko urtegitako okupazio-erreserba (Oñati)

Aurreikusitako HUAk egikaritu dira jada. Edonola ere, LPPn Urkulu II eta Olateko proposamenak berrikusi behar dira, lurralde- eta sektore-joera berrien argitan.

## 5.2. Energia

### 5.2.1. LPPk proposatutako eredua. Haize-energia. LPS

LPPk Elgea-Urkillako (Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza) haize-parkeari eskaintzen dio araudiaren 32. artikulua, eta adierazten du haize-parkea Haize Energiaren LPSrekin bat etorritik mugatu dela. Haize Parke hori gauzatuta eta abian dago. Artikulu berean adierazten da ahalik eta gehien bultzatuko dela haizearen aprobetxamendua zona isolatueta instalazio txikietan.

### 5.2.2. LAG Energia

LAGetan efizientzia energetikoaren eta energia berriztagarrien garrantzia azpimarratzen da, lurralde-jasangarritasunerako, lehiakortasunerako eta klima-aldaketaren aurkako borrokarako ezinbesteko baldintzak izateagatik. Alderdi horiek guztiak bermatzeko, LAGak honako zeregin hauek zehazten dizkio LPPari:

*16.1. artikulua.- Lurralde-plangintza partzialak honako zeregin hauek bete behar ditu:*

- a) Erabilera-eskema orokor bat ezartzea, nahitaezko mugikortasunaren ondoriozko lekualdaketak murrizteko.
- b) Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko behar diren azpiegiturak ezartzeko lur-erreserba egokiak biltzea, energia-alorrean ezarritako helburuak betetzeko behar adinako kopuruan eta ahalmen nahikoarekin.
- c) Energia Elektrikoa Garraiatzeko Sarearen plangintza kontuan hartzea, sare horretan bildutako instalazioak kokatzeko behar diren lurzoru-erreserbak eginez.
- d) Garapen-ardatz linealak indartzea, garraio publikoko zerbitzuak erabiltzea bultzatzeko eta polizentrismoan oinarritutako hiri-egitura eraginkor eta trinkotuak sustatzeko, hartara lekualdatze-premiak murrizteko.
- e) Energia-jasangarritasuna ebaluatzeko azterketa egin dadin bultzatzea, plangintza horrek energia-kontsumoaren eta energia-aurreztearen eta -efizientziaren gainean nola eragiten duen aztertze, eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.

Elgea-Urkillako haize-parkearen proposamena berrikusi behar da, Energia Berriztagarriei buruzko LPSren eta planteia litezkeen energia-intentsifikazioko proposamenen argitan.

### 5.3. Ekonomia zirkularra

#### 5.3.1. Hondakinen kudeaketa

- LPPk hondakinen kudeaketarako proposatutako eredua

Funtsezko azpiegitura-sistemako ekintza eta elementu nabarmenen artean, edo lurraldean eragin handiena dutenen artean, honako hauek adierazten ditu LPPk:

1. Hiri-hondakin solidoen (HHS) transferitzentziagunea, Akeiko erraustegi zaharrean
2. Hondakin toxiko eta arriskutsuen (HTA) transferitzentziagunea (Epele).
3. Hondakin geldoen zabortegia Epelen.
4. Hondakin-gordailu alternatiboak (Garbiguneak). Ibarreta (Arrasate), San Kristobal (Bergara) eta Urrutxuko (Oñati) garbiguneak kokatu dira, eta beste kokapen bat gehitu da garbigune-sarera Esteibarren (Eskoriatza).
5. Baso- eta egur-hondakinen balorizazio energetikorako zentrala Epelen (Arrasate)

- Lehendik dagoen Lurralde Plangintza Sektoriala (Gipuzkoa)

Bestalde, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren LPSk honako azpiegitura hauek antolatzen ditu:

- Konposta egiteko instalazioak:
  - a) Debagoiena (Bergara): Epeleko hondakin geldoetarako zabortegiaren alboko lursaila.
- Transferentziaguneak:
  - b) Debagoiena: Akei (Arrasate).

Bi dokumentuetan jasotako azpiegiturretatik, oraindik abian jarraitzen dute lehendik zeuden hiru garbiguneek eta jada egikarituta dago Epeleko konposta egiteko instalazioa. Hondakin geldoetarako Epeleko zabortegia itxi egin da eta aurreikusitako gainerako instalazioak ez dira egikaritu.

- LAG. Ekonomia Zirkularra

*17.2. artikulua.- Lurralde-plangintza egitean hondakinak gaika biltzeko eta birziklatzerako helburu batzuk zehaztea, helburu horiek kudeatzeko behar diren erreserbak zehaztuz, haien banaketak eremu funtzional osoari zerbitzu bikaina eta orekatua bermatzeko moduan.*

#### 5.3.2. Lurzorua baliabide gisa

- LPPk proposatutako eredua

LPPk ez du lurzorua modu esplizituan baliabidetzat tratatzen, baina, modu inplizituan, ingurune fisikoaren oinarritzat ageri da nonahi. Natura-interesa duten esparruak babestearen bitartez, eta esparru degradatuak hobetzeko edo leheneratzeko aurreikusitako ekintzen bitartez zein ingurumena babesteko neurri orokor eta zehatzen bitartez, lurzorua babesten eta hobetzen da zeharka.



- LAG. Lurzorua baliabide gisa

LAGak urrats bat haratago doaz lurzoruaren aintzatespenean, ez soilik beste elementu batzuen (naturalak zein antropikoak) oinarri gisa, baizik eta berezko baliabide eta balio gisa.

*18.2. artikulua.- Lurzoruaren erabilerak planifikatzea «lurzoruaren kalitatearen» faktorea kontuan hartuz, gizakien osasunarentzat eta ekosistemen funtzionamenduarentzat onartezinak diren arriskuen prebentzioa ziurtatzeko, eta kutsatzaileak beste ingurune-konpartimentu batzuetara barreia daitezen saihesteko eta baliabideen erabilera optimizatzeko.*

## 6. MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA

### 6.1. Mugikortasun multimodala

#### 6.1.1. LPPren zehaztapenak.

Bere helburuen artean, honako hauek ditu LPPk:

*Oinarrizko interkonexioetan aurreikusitako harreman-sistemaren egituraketaosatzea (Eibar-Gasteiz autobidea eta Beasain-Durango autobia), eskualde mailako interkonexioen hobekuntzarekin (lehen mailako sarea) eta behe mailako sare osagarri eta tokikoekin.*

*Azpiegitura-jarduketa horiekin batera, garraio publikoko sistema egoki bat eta haren zerbitzurako beharrezkoak diren azpiegiturak (aparkalekuak, garraio-zentroa, autobus-geltokia...) ezartzea proposatzen da.*

Illo horretan, Lurralde Plan Partzialak proposatzen ditu, besteak beste, disuasio-aparkalekuak ezartzeaz eta Bergaran errepide-garraiorako zentro bat sortzeaz gainera, geltoki intermodal bat Elorregin eta garraio publikoaren zentro bat Epelen (trenbide-garraiorako instalazio osagarriak):

*Elorregi ingurua; Epele, Zubillaga, Elkoromuño-Ipiñarri (San Prudentzio), hiru azpieremuen batasunaren eta harreman-sistemaren gune neuralgiko sinboliko gisa konfiguratu da. Elorregik egingo dio leku eremu funtzionaleko meeting-point-ari, bere ahalmen fisikoaren arabera (espazioa lehengoratzeko), harrera-zentro, informazio-gune eta kanpotik sartzen denarentzat garraio-aldaketa egiteko puntu gisa; barneko garraio-zerbitzuan planteatutako birkualifikazio garrantzitsuena trenbide-azpiegitura berrian datza.*

#### 6.1.2. LAG eta LPP

LAGen berrikuspenean, garraio- eta komunikazio-azpiegituren eredian sartzen da garraio kolektibo multimodala, eta printzipio nagusietako bat, besteak beste, garraio publiko multimodala sustatzea da, garraiobideen konbinazioa optimizatuz, abiadura handiko trenaren zerbitzua erabilgarri dagoen egunean. Hala, mugikortasun multimodalaren arloko Gidalerroen 25. artikuluan, besteak beste, honako hau adierazten da:

*5.- Autobus-geltokiak intermodalitate-irizpideei jarraikiz sortzea, aldiriko tren-geltokiekin eta garraio-sarean sartzeko nodo nagusiekin integratuz, aireportu eta abiadura handiko trenen geltokiekin, adibidez, baita bizikleta-mugikortasunarekin ere, bizikletak alokatzeko sistemak barne.*

### 6.2. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

#### 6.2.1. LPPren zehaztapenak.

Oinezkoen pasealekuek eta bidegorri-sareak sistema integratu bat eratzen dute, biztanleria-gune nagusiak eta proposatutako aisialdi-eremuak lotzen dituen, aldi berean, lurraldeko natura-, paisaia-, ondare- eta jostatzeko-intereseko elementuak batzen dituztelarik.

Sare horretan hiru esku-hartze mota bereizten dira: Trenbide-zabalguneetan eta landa-bideetan; bide-bazterretan; eta trazatu berrietan. Nabarmentzekoak dira honako proposamen hauek:

- GI-627 errepidea hobetzea eta parke-bide bihurtzea Elorregin (San Prudentzio)
- GI-2630 errepidea hobetzea eta parke-bide bihurtzea, Elorregin (San Prudentzio) GI-627 errepidearekin batzen den gunean.

- Oñatiko hirigunearen bigarren faseari dagokion saihesbidea
- GI-6260 errepidea parke-bide eraldatzea (Arrasate eta Aramaio artean)

#### 6.2.2. Lurralde-plangintza sektoriala (EAE, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia).

Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSk honako ibilbide hauek definitzen ditu Debagoieneko EFren esparruan:

- Ibilbidea Bergara-Elorregi-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Arabako muga
- Bergara-Antzuola
- Elorregi-Oñati
- Arrasate-Arrasate
- Leintz Gatzaga
- Bergara-Urretxu

#### 6.2.3. LAG eta LPP

LAGek oinezkoen eta bizikleten mugikortasunak norbanakoaren, gizartearen eta ingurumenaren mailan dakartzan onuren garrantzia azpimarratzen dute eta honako gidalerro hauek ezartzen dituzte:

*26.4. artikulua.- Lurralde-plangintza partzialak honako hauek egin behar ditu:*

- a) LPPetan, EAEko Bizikleta Ibilbideei buruzko Plan Zuzentzailea eta oinezkoentzako ibilbideak garatzea Eremu Funtzionalaren mailan, guneen arteko konexio-sarea sortuz.*
- b) Edukiari Donejakue Bidea, Inaziotar Bidea, Itsasoaren Bidea, Ardoaren eta Arrainaren Bidea, Kataluniatik Galiziara doan GR-1 Bidezidor Historikoa, Arabako Artzaintza Naturbidea eta Ebroko Bide Naturala eranstea.*

Ildo horretan, Arrasate-Bergarako (Degagoiena) LPPk lehen puntua betetzen du, izan ere, ingurumen-ibilbideen sarearen barruan jasotzen ditu Gipuzkoako bizikleta-bideen LPSko bizikleta-ibilbideak, eta oinezkoen eta bizikleten konexio-sare bat sortzen du, bai eremu funtzionaleko guneen artean, bai haien eta ingurunekeo naturaguneeen artean ere.

EF zeharkatzen duen Ignaziotar Bideari dagokionez, LPPak partzialki adierazten du grafikoki ibilbide bigunen sarean, baina identifikatu gabe. LPPren berrikuspenean baloratu beharko da alde hori.

### 6.3. Bide-mugikortasuna

#### 6.3.1. LPPren zehaztapenak.

LPPk kategorien arabera sailkatzen ditu bide-sareko elementuak: Kanpoko Sarbide Sare Orokorra; Lehen Mailako Banaketa Sarea; Tokiko Sarbide Sarea; eta Bigarren Mailako Tokiko Sarbide Sarea. Araudiaren 27. artikuluan bide-sarearen gaineko esku-hartzeak aurreko sailkapenaren arabera proposatzen dira, eta, edozelan ere, indarreko plangintza sektorialera doitu behar dira. Hona hemen proposamen garrantzitsuenak:

- Eibar-Gasteiz autobidea lau lotunerekin: Bergara iparra, Bergara hegoa, Arrasate iparra eta Eskoriatza iparra.
- Beasain-Durango autobidea bost lotuneren proposamenarekin: Antzuola ekialdea, Antzuola mendebaldea, Bergara hegoa, Arrasate iparra eta Kanpazar.
- Olandixoko tunela GI-2620rekin konektatzeko eta Garagartzako bailarara sartzeko.
- Oñatiko saihesbidea.

Oñatiko saihesbidearen ekialdeko zatia kenduta, beste guztiak gauzatuta eta abian daude. Beasain-Durango autobian oraindik egikaritzeke dago Kanpanzar-Elorrio zatia, baina esan behar da ez dela eremu funtzionalaren parte.

Gainerakoan, ez da bide berririk planteatzen, alegia, proposamenak lehendik dauden bideak hobetzera, indartzera eta sustatzera bideratuta daude, lotune berriren bat eginez.

#### 6.3.2. Lurraldeko plangintza sektoriala. EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra

Lehen ere adierazi dugun moduan, onartu ziren unean indarrean zegoen plangintza sektorialaren arabekoak dira LPPren proposamenak. 2020ko maiatzaren 19an, 63/2020 Dekretuaren bitartez, EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra onartu da, 2017-2028 aldiari dagokiona. Plan horretan proposatzen da, Debagoieneko eremu funtzionalako obra nagusi gisa, N-636 errepidean, gaur egun eraikitzen ari diren Antzuola eta Bergara arteko zatia amaitzea.

### 6.3.3. LAG eta LPP

LAGen arabera, EAEko errepideen planifikazioa amaituta dago hein handi batean, eta, beraz, LPPren proposamenak, lehendik dauden bideak kontsolidatu eta hobetzera bideratutakoak, guztiz indarrean daude oraindik. Edozelan ere, LAGek lurraldea egituratzeko sare berri bat txertatu dute, hots, Azpiegitura Berdea, eta adierazten du azpiegitura berde berri horren eta azpiegitura grisaren arteko elkarguneetan, lehena gailendu behar dela. Beraz, LPPren berrikuspenean, azpiegitura berdearen konektagarritasun ekologikoa aztertu behar da eta lehendik dagoen bide-sarearekin gatazkarik dagoen ikertu behar da, horiei erantzuna emateko.

## 6.4. Trenbide-mugikortasuna eta -logistika

### 6.4.1. LPPren zehaztapenak.

LPPk trenbide-sarearen barruan biltzen ditu bai aldiriko sareak (RENFE eta EUSKOTREN), bai Trenbide Sarearen LPSk proposatutako trenbide-sare berria, bai eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak proposatutako tranbia ere, hain zuzen ere, LPPk Legazpiraino luzatzea iradokitzen duena.

Gainera, San Prudentzion proposatzen den erdigunea indartze aldera, geltoki intermodal bat proposatzen du Elorregin, eta trenbide-garraiorako instalazio osagarriak (geltokia, kotxetegiak...) Epele aldean.

### 6.4.2. Lurralde-antolamendu sektoriala (EAEko trenbide-sare berria)

EAEko Trenbide Sarearen LPSk trazatu lotesle gisa hartzen du LPPk jasotzen duen linea, eremu funtzionala ekialdetik mendebaldera korritzen duena iparraldeko erdian, eta iparretik hegora mendebaldekoan. Hala ere, LPSk ez du proposatu tranbiarik eremu funtzionalerako, eta, beraz, proposamen hori LPPren berrikuspenean birplanteatu beharko litzateke.

## 7. EKIPAMENDUAK

### 7.1. LPPren zehaztapenak

*LPPk funtsean kulturen eta aisialdian oinarritutako ingurumen- eta paisaia-kalitateko espazio bat eskaini nahi du, hori guztia eskualdeak herritarrei zerbitzu eraginkorra emateko izan behar dituen ekipamenduen kaltetan izan gabe.*

Helburu horrekin, dauden ekipamenduak jasotzen ditu, garrantzi berezia emanik unibertsitate-ekipamenduei (Mondragon Unibertsitatea eta UNED), eta proposamen hauek egiten ditu:

#### a) Kultura ekipamendua:

1. Dorletako Ekomuseoa (Leintz Gatzaga)
2. Eskoriatzako Museo Etnografikoa.
3. Elektrizitate Museoa (Oñati).
4. Arrikruzeko Haitzuloak (Oñati)
5. Arantzazuko Kultura Zentroa (Oñati).
6. Bergarako Errege Seminarioko Zientzia Museoa
7. Mendiari buruzko euskal museoa/interpretazio-zentroa (Elgeta).
8. Debagoieneko Industriaren eta Teknologiaren Museoa-Interpretazio Zentroa (Arrasate).

#### b) Kirol-ekipamendua:

1. Musakolako kiroldegia (Arrasate)
2. Bergara, Arrasate eta Elgetako pilotalekuak
3. Garagaltza-Berezaoko golf zelaia (Oñati).

c) Eskualdeko espazio libreak. Atsedenlekuak.

1. Ibai parkea (Debaren ibaiertza) Leintz-Gatzaga.
2. Besaide (Arrasate – Aramaio)
3. Elorregi – S. Prudentzio (Bergara – Arrasate)
4. Gorla (Bergara-Antzuola)
5. Asentzio (Elgeta)
6. Karabieta (Elgeta)
7. Usako (Oñati)
8. Torrebaso-Bainuetxe (Eskoriatza)
9. Ibilbide bigunak: oinezkoen zirkuituak eta bidegorriak

Gainera, lau esparru proposatzen dira hirugarren sektoreko erabilera, merkataritza-gune eta aisialdi eta turismoko instalazioetarako:

1. Merkataritza- eta aisialdi-zentroa Arrasaten
2. Elorregiko (Bergara) harrera- eta informazio-zentroa, San Prudentzioko geltoki intermodalarekin eta bai errepide eta bai trenbide arloko instalazio osagarriekin loturak dituen.
3. Turismo-, hotel-, aisialdi- eta kultura-ekipamenduak Garagaltza-Berezaon, Oñatiko lurraldera sartzeko gunea den aldetik.
4. Gaztainuzketako turismo-, hotel-, aisialdi- eta kultura-ekipamenduak, Leintz-Gatzagako lurraldera sartzeko gunea den aldetik.

## 7.2. Ekipamenduak garatzeko politika sektoriala

1. Hezkuntza-, kirol- eta laguntza-ekipamenduen arloko jarduketak lehendik zeuden ekipamenduak hobetzeko eta handitzeko izan dira, eta esku-hartzeak egin dira eremu funtzionaleko zenbait zentrotan.
2. Kulturaren arloan aurreikusitako jarduketak garatuz joan dira, neurri handi batean, baina proposamenetako batzuk ez dira aurrera eramane.
3. Bestalde, oinezkoen eta bizikleten pasealekuak garatu dira, baita ibilbide eta azpiegitura bigunak ere natura-, ondare- eta turismo-intereseko zonetan.
4. San Prudentzio esparruan proposatutako esku-hartzeei lotutako ekipamenduak ere ez dira garatu, eta zehaztapen horiek berrikustea eskatzen dute.

## 8. ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOAK

### 8.1. LPPren zehaztapenak. Esku-hartze estrategikoak

Planen proposatzen diren proposamenen multzotik, lurralde-ereduan eta eskualdearen antolaketa eragin berezia duten eragiketen eta esparruen artean, hauek dira eremu funtzionaleko berezitasun eta garrantzi handieneko bi esku-hartzeak:

- Elorregiko interkonektorea
- Garagaltza-Berezaoko eskualde-erabilerako zona

a) Elorregiko interkonektorea

Autobidearen eta autobaien zati erkidearekin eta Oñatiko bailararen hasierarekin bat eginik, Elorregiko interkonektorea (S.Prudentzio) izeneko lurralde-multzoa zedarritu da. Planaren proposamen nagusia Elorregiko ingurunearen funtzioen definizioan oinarritzen da. Horretarako, honako hauek proposatu dira:

- Geltoki intermodala (tranbia, autobusa, ibilgailu pribatua)
- Disuasioko aparkalekua
- Eremu funtzionaleko eta zerbitzuetako (ostalaritza, merkataritza, tokiko produktua...) jarduera guztiekin lotura duen harrera- eta lurralde-informazioko zentroa

Zona osoan eta, batez ere, bide-komunikazioko sarean, ingurumen-kalitate handiko esku-hartze urbanizatzailea egitea bilatzen da (PARKE BIDEA), arreta berezia jarriarik informazioan, Deba ibaiaren ibilgua eta Oñati ibaiaren ibaiadarra seinalizatzearen eta tratatzearen bidez.

#### b) Garagaltza-Berezaoko eskualde-erabilerako zona

Oñatiko hirigunea eta hiri-saihesbidearen trazatua barnean hartzen dituela, zona zabal hori eskualde mailako erabilera eta elementu jakin batzuk kokatzeko azterketa bateratuko esparru gisa mugatu da. Aisialdiarekin eta kirolarekin lotutako instalazioez eta zerbitzuez gainera (golf-zelaia), hotel-instalazioak eta unibertsitate-campusa ez ezik (hirigune historikoan eta haren inguruetan dauden instalazioak handituz), «Enpresa-jardueren parke» bat garatzea proposatzen da, Arrasaten Garaia Planak zedarritzen duenaren antzekoa.

### 8.2. Proposamenen garapen maila

Aipatzekoa da, bestalde, deskribatutako esku-hartze estrategikoak ez direla garatu, ezta jaso ere LPPra egokitutako hirigintza-plangintzan.

Elorregiko interkonektoreari dagokionez, mugikortasunaren atalean adierazi den bezala, esparruaren egungo egoerak eta haren ingurumen- eta plangintza sektorial arloko baldintzatzaileek gomendatzen dute LPPren berrikuspenean berrazter dadila berriro egindako proposamenaren kokapena. Aipatzekoa da, era berean, LPPra egokituta dauden Arrasateko (2016) eta Bergarako (2009) hirigintza-plangintzetan ez dela esku-hartze hori jasotzen.

Garagaltza-Berezaoko eskualde-erabilerako zonari dagokionez ere, ez da egikaritu aurreikusita zegoen esku-hartzea. LPPk azterketa espezifiko bat egin beharra aurreikusten zuen (Plan Zuzentzailea), antolaketa-eskema koordinatua eta hura garatzeko denbora-prozesua ezar zezan, baina Plan Zuzentzaile hori ez da sustatu. Bestalde, Oñatiko plangintza (2005) ez dago LPPra egokituta, eta, hortaz, ez du esparru horretarako haren proposamena jasotzen.

## 9. ZEHAIAKAKO GAIK

Azken urteotan, gai jakin batzuek garrantzi handia hartu dute politika publikoen diseinu eta kudeaketaren alorrean, eta gai horiek ere kontuan hartu behar dira lurraldea antolatzean, eta, beraz, hala jasotzen dira LAGetan. Berez lurraldeari estu lotuta ez badaude ere, lurraldean nolabaiteko eragina duten gai batzuek ari gara. Hala nola irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, euskara, irisgarritasun unibertsala eta lurralde arteko erlazioa.

Gai horiek ez ziren Debagoieneko LPPn sartu, eta, beraz, aztertu eta baloratu egin beharko dira berrikuspenean, dagozkien erabakiak hartzeko.

## II.- ONDORIOAK

### A) Ondorio orokorrak

Gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ingurunean izandako aldaketak direla eta, 2019ko LAGetan ikuspegi berriak jaso behar izan dira datozen urteetarako lurralde-estrategia prestatzeko, hala nola hiri-

berroneratzeari ematen zaion arreta berezia, lurzorua balioan jartzea baliabide mugatu gisa, klima-aldaketa, mugikortasun jasangarria, paisaia, azpiegitura berdea, ekosistemen zerbitzuak, baliabideen kudeaketa jasangarria, genero-ikuspegia, osasuna, irisgarritasuna, euskara, immigrazioa, parte-hartzea eta gobernantza ona, besteak beste. Horiek guztiek gidalerro berriak sortu dituzte, eta LPPEk ikuspegi horiek jaso beharko dituzte, idazteko unean aintzat hartu ez ziren alderdi guztietan.

Arrasate-Bergarako LPP (Debagoiena) bat dator 2019ko LAGekin ingurune fisikoaren tratamenduari eta garapen-irizpide orokorreari dagokienez, baina, bi kasuetan, sakondu egin behar da ingurune fisikoaren kategorizazioan eta Azpiegitura Berdearen eta Hiri Hazkunderen Perimetroaren kontzeptuetan. Gainera, guztiz bat dator hiri-berroneratzearen printzipioekin. Edozelan ere, orain eraldatze-ardatz gisa definitzen denaren gainean hartutako zehaztapenak osatu beharko ditu.

## **B) Ondorio partikularrak**

### **a) Ingurune fisikoa**

1. 2019ko LAGetako planteamendu orokor berriek urrats gehiago egiten dituzte lurralde-antolamenduaren jasangarritasunean. Horiek moldatzeko beharra adierazten dute, baina ez dute zalantzan jartzen indarreko LPPan jada zehaztuta dagoena. Ingurune fisikoaren antolamenduari eta babesari dagokionez, klima-aldaketara moldatu behar izateak erantzun egokia eskatzen du.
2. LPPk LAGetako Ingurune Fisikoaren kategorizazioa jaso beharko du, bai eta LAGetan definitutako baldintzatzaile gainjarriak ere. Horrela, Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko azpikategorian, LPPk Nekazaritza eta Basozaintzako LPSren mugaketa jaso beharko du.
3. Hobekuntza-elementu gisa, LPPk azpiegitura berdearen kontzeptua jaso beharko du, bai eta eremu funtzional mailako korridore ekologikoak definitu ere, jada babestutako naturaguneen arteko konektagarritasun ekologikoa bermatzeko, LAGetako 4.6. artikuluko zehaztapenei jarraikiz.

### **b) Landa-habitata**

1. Arrasate-Bergarako (Debagoiena) Lurralde Plan Partziala LAGekin guztiz bat dator landa-habitatari ematen zaion tratamenduari buruz; hain zuzen ere, landa-habitatari behar duen konektagarritasuna eman nahi zaio, habitata gordetzeko eta biztanleria mantentzeko.
2. Nolanahi ere, 2/2006 Legearen 29. artikulua betetzeko, lurzoru urbanizaezineko landa-kokaguneak dagokion foru-aldundiko inbentarioak halakotzat identifikatzen dituztenean hartuko dira landagunetzat, edo, halakorik ezean, legean adierazitako baldintzak betetzen dituztenean.

### **c) Hiri-habitata**

1. Hiri-habitatari dagokionez, LPPren zehaztapenek behar bezala erantzuten diete Gidalerro berriei, bai definitutako eraldatze-ardatzaren tratamenduaren ikuspegitik, bai jada okupatutako lurzoruen optimizazioaren ikuspegitik. Zehazki, LPPk hiri-berroneratzea esku-hartzeko modu esanguratsu gisa planteatzen du.
2. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan Debagoieneko Eraldatze Ardatzerako adierazitako proposamen gehienekin bat datorren arren, berrikusi egin behar litzateke LPPk bailaran luzetarako trenbide-ibilbideari buruz egiten duen proposamen zehatza. Era berean, honako egokitzapen hauek ere egin daitezke: hala definitutako esparruak doitzea, ekobulebar kontzeptua erabiltzea GI-627 errepidearen diseinuan edo Deba ibaiaren ibilgua korridore ekologiko gisa hartzea, uholde-arriskuak kontuan hartuta.
3. LAGek bizitegi-kuantifikaziorako irizpide berriak jasotzen dituzte eta gidalerro berriak zehazten dituzte hiri-habitaterako, hala nola LPPEi eskatzea Hiri Hazkunderako Perimetroa defini dezan; horregatik, berrikuspina egiteko unean, LPPk bizitegi-kuantifikazioa irizpide berrietara doitu beharko du, kuantifikazioa murriztu eta aipatutako zeregina betez.

4. Lurralde Plan Partzialak, bizitegi-garapen berriko edo jarduera ekonomikoetarako lehentasuneko eremuak definitzen dituen momentuan, hiri-hazkundearen perimetro baten tankerako proposamena jasotzen du, baina ez da ahaztu behar LAGetan ezarritako gidalerroetan adierazitakoaren arabera berrikusi egin beharko dela proposamen hori; gainera, orografia malkarreko lurraldea izanik, hiri-hazkundearen perimetroaren definizioak berebiziko garrantzia hartzen du.
5. Esparru bakoitzeko dentsitateen definizioari dagokionez egiten duen kontzeptualizazio guztia ere (baxua, ertaina, handia) berrikusi egin behar da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak alde batera utzi baitu alderdi hori, gutxieneko eta gehieneko eraikigarritasunak zehaztearekin.
6. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokionez, ikusi da beharrezkoa dela inbentario zehatz bat izatea kontsolidatuta eta hutsik dauden industria-lurzoruen baldintzei buruz, abiapuntu gisa erabiltzeko.

#### **d) Paisaia, Kultura- eta Natura-Ondarea, eta Baliabide Turistikoak**

1. Debagoieneko LPPk Natura Ondarearen inguruan egiten dituen antolamendu eta zehaztapenak elementu positiboa izan dira, eta dira, eremu funtzionalaren garapen jasangarriako; horiei esker, ekosistemak gorde ahal izan dira eta, ondorioz, horiek natura- zein giza jarduera behar bezala garatzeko eskaintzen dituzten zerbitzuak mantendu ahal izan dira.
2. Kultura Ondareari dagokionez, idazketaren unean emandako tratamendua egokia izan arren, 6/2019 Legea onartu izanak LPP esandako legera egokitzera behartzen du eta euskal kultura-ondarea bere osotasunean sartzera eta lege horretan ezarritako tipologiaen arabera egituratzera.
3. Paisaiari eta baliabide turistikoari dagokionez, lurralde-antolamenduko kontzeptu gisa nahikoa izaera berria duten arloak ditugu; hori dela eta, LPPk gai horiei ematen dien erantzuna ez da gaur egungoa eta, beraz, berrikusi egin beharko da.
4. Paisaiari gagozkiola, ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoak, hainbat tresna ezartzen ditu paisaia lurralde-antolamenduaren berariazko dimentsio gisa kudeatzeko eta garatzeko, Paisaiaren Eupako Hitzarmenak (Europako Kontseiluak onartu zuen 2000. urtean) aldarrikatzen duenarekin bat etorritik. Hortaz, Lurralde Plan Partzialak paisaia gordetzea puntualki tratatzen duen arren, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei erantzun egokia ematearren, gaia aztertu beharko luke, Paisaiaren Katalogoak prestatuz eta hortik ondorioztatzen diren Zehaztapenak jasorik.

#### **e) Baliabideen kudeaketa jasangarria**

1. LPPk eremu funtzionalean eskuragarri dauden baliabideen kudeaketari buruz egiten duen planteamenduak administrazio sektorial bakoitzak aurreikusitako azpiegiturak eta planak jasotzen ditu (Gipuzkoako hiri-hondakinen azpiegituri buruzko LPS, adibidez) eta horrek kudeaketa egokia eskaintzen du, nahiz eta LAGen proposamen berrien ildo nagusiak adierazi baliabideen kudeaketa integratu, jasangarri eta zirkularra beharrezkoa dela; horrek planteamendu-ildo berri bat izan behar luke LPPren etorkizuneko berrikuspen batean.
2. Urkulu II urtegiaren eta Olateko presaren proposamenei dagokionez, LPP berrikusi behar da, lurralde- eta sektore-joera berriei koherente izateko.
3. Elgea-Urkillako haize-parkearen proposamena berrikusi behar da, Energia Berriztagarriei buruzko LPSren eta planteatutako energia-intentsifikazioaren proposamenen argitan.

#### **f) Mugikortasuna eta logistika**

1. Lurralde Plan Partzialak aurrera eramandako mugikortasunaren eta logistikaren antolamenduak hainbat zehaztapen biltzen ditu, oro har, modu garrantzitsuan garatu direnak (Eibar-Gasteiz autobidea, dagoeneko eginda; eraikitzen ari den trenbide-sare berria; Beasain-Durango autobidea, gauzatuta, egiteke dagoen zatia ez baita eremu funtzionalaren parte), eta bat datoz hala LAGen zehaztapenekin nola indarrean dauden plan sektorialekin (Errepideen Hirugarren Plan Orokorra,

Gipuzkoako trenbide-sarearen LPS, Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPS); horrek esan nahi du LPPk jokabide egokia izan duela arlo honetan.

2. Hobetzeko elementu gisa, azpiegitura grisaren eta azpiegitura berdearen arteko balizko gatazka-puntuak berrikusi behar dira, eremu funtzionaleko naturaguneen konektagarritasun ekologikoa bermatze aldera.
3. San Prudentzio esparruan ez dira gauzatu ez geltoki intermodala, ezta aurreikusitako trenbide- eta errepide-instalazio osagarriak ere. Esparru horretan, hain zuzen, LPPk eremu funtzionaleko eragiketa estrategiko garrantzitsuenetako bat proposatzen du. Hala ere, esparruko baldintza orografikoek eta hidrologikoek, bai eta duen okupazio- eta plangintza-mailak ere, gomendatzen dute LPPren berrikuspenean egitean, berrazter daitezela kokapen horretarako dituen helburuak.
4. Halaber, bailara tranbia-bidez egituratzeko proposamena berrikusi behar da, eta berriro aztertu.
5. Azkenik, irizten zaio LPPk Ignazioren Bidea bereizi eta identifikatu behar lukeela, horrela izendaturik, bide horrek mugikortasunaren eta kulturaren aldetik duen garrantzia kontuan hartuta.

#### g) Esku-hartze estrategikoak

1. Esku-hartzeari dagokionez, bi hiri-esparru garrantzitsuenetan, Elorregiko interkonektorea eta Garagaltza-Berezaoko eskualde-erabilerarako zona, LPPren proposamenek ez dute garapenik izan; beraz, LPPren berrikuspenean aztertu beharko da ea indarrean jarraitzen duten.
2. Nolanahi ere, udal plangintza LPPra egokitzeak erraztu egingo luke eremu funtzionaleko (osotasun gisa hartuta) garapen-estrategiak aurrera eramatea.

#### h) Zeharkako Gaiak

1. Jada adierazi den bezala, zeharkako gaiak (irigarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde arteko erlazioa) kontuan hartu beharko dira lurralde-plangintzaren berrikuspenean, hobetzeari begira.

*Elektronikoki honako hauek sinatua:*

Firmado electrónicamente por:

LURRALDE ANTOLAMENDUKO  
ARKITEKTOA  
ARQUITECTA DE ORDENACIÓN  
TERRITORIAL

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU  
ETA PLANEAMENDURAKO  
ZERBITZUAREN ARDURADUNA  
EL RESPONSABLE DEL SERVICIO DE  
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y  
PLANEAMIENTO

O.E. / Vº Bº  
LURRALDE PLANGINTZA, HIRIGINTZA  
ETA HIRI BERRONERATZE  
ZUZENDARIA  
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN  
TERRITORIAL, URBANISMO Y  
REGENERACIÓN URBANA

Fdo.: Helena BIURRUN  
GALARRAGA: Izta.

Fdo.: Jesús Mª ERQUICIA  
OLACIREGUI: Izta.

Fdo.: Ignacio DE LA PUERTA RUEDA:  
Izta.

### **I. Eranskina.- LURRALDE- ETA HIRIGINTZA- JASANGARRITASUNEN ADIERAZLEAK**


#### **A.1.- Lurralde-eredua. Lurzorua kalifikazioa.**

##### **A.1.a)- Lurralde-eredua. Lurzorua kalifikazioa.**



| UDALPLAN 2019<br>ESPARUA<br>ÁMBITO TERRITORIAL | 1(a)                   |       | 1(b)                                           |       | 1(d)                                    |       | 1 (Lurralde Eredua - Modelo Territorial) |        | 1(d)                                           |        | 1 (Lurralde Eredua - Modelo Territorial) |         |
|------------------------------------------------|------------------------|-------|------------------------------------------------|-------|-----------------------------------------|-------|------------------------------------------|--------|------------------------------------------------|--------|------------------------------------------|---------|
|                                                | Egoitza<br>Residencial |       | Jarduera Ekonomikoak<br>Actividades Económicas |       | Sistema Orokorrak<br>Sistemas Generales |       | Kalifikatua guztira<br>Total calificado  |        | Lurzorua Urbanizaezina<br>Suelo no Urbanizable |        | Guztira<br>Total                         |         |
|                                                | ha                     | %     | ha                                             | %     | ha                                      | %     | ha                                       | %      | ha                                             | %      | ha                                       | %       |
| UDALERRIAK / MUNICIPIOS                        |                        |       |                                                |       |                                         |       |                                          |        |                                                |        |                                          |         |
| Aramaio                                        | 13                     | 0,16% | 8                                              | 0,10% | 60                                      | 0,76% | 81                                       | 1,02%  | 7.801                                          | 98,98% | 7.882                                    | 7.882   |
| Antzuola                                       | 19                     | 0,69% | 14                                             | 0,49% | 16                                      | 0,59% | 50                                       | 1,78%  | 2.741                                          | 98,22% | 2.791                                    | 2.791   |
| Aretxabaleta                                   | 45                     | 1,67% | 32                                             | 1,20% | 36                                      | 1,33% | 113                                      | 4,20%  | 2.581                                          | 95,80% | 2.694                                    | 2.694   |
| Elgeta                                         | 13                     | 0,76% | 22                                             | 1,24% | 13                                      | 0,73% | 48                                       | 2,74%  | 1.704                                          | 97,26% | 1.752                                    | 1.752   |
| Eskoriatza                                     | 30                     | 0,75% | 34                                             | 0,84% | 49                                      | 1,22% | 113                                      | 2,81%  | 3.919                                          | 97,19% | 4.032                                    | 4.032   |
| Arrasate/Mondragón                             | 125                    | 3,81% | 215                                            | 6,55% | 108                                     | 3,27% | 449                                      | 13,63% | 2.842                                          | 86,37% | 3.291                                    | 3.291   |
| Oñati                                          | 97                     | 0,90% | 99                                             | 0,92% | 180                                     | 1,67% | 375                                      | 3,49%  | 10.379                                         | 96,51% | 10.754                                   | 10.754  |
| Leintz-Gatzaga                                 | 2                      | 0,17% | 0                                              | 0,00% | 6                                       | 0,42% | 9                                        | 0,59%  | 1.461                                          | 99,41% | 1.470                                    | 1.470   |
| Bergara                                        | 80                     | 1,06% | 192                                            | 2,55% | 192                                     | 2,54% | 464                                      | 6,14%  | 7.099                                          | 93,86% | 7.563                                    | 7.563   |
| EREMU FUNTZIONALA / ÁREA FUNCIONAL             |                        |       |                                                |       |                                         |       |                                          |        |                                                |        |                                          |         |
| Debagoiena                                     | 425                    | 1,01% | 617                                            | 1,46% | 660                                     | 1,56% | 1.701                                    | 4,03%  | 40.527                                         | 95,97% | 42.229                                   | 42.229  |
| LURRALDE HISTORIKOAK - TERRITORIOS HISTÓRICOS  |                        |       |                                                |       |                                         |       |                                          |        |                                                |        |                                          |         |
| ÁLAVA/ARABA                                    | 5.622                  | 1,85% | 4.736                                          | 1,56% | 5.424                                   | 1,78% | 15.782                                   | 5,19%  | 288.405                                        | 94,81% | 304.187                                  | 304.187 |
| BIZKAIA                                        | 8.109                  | 3,66% | 5.223                                          | 2,36% | 6.849                                   | 3,09% | 20.181                                   | 9,11%  | 201.338                                        | 90,89% | 221.519                                  | 221.519 |
| GIPUZKOA                                       | 5.148                  | 2,60% | 3.866                                          | 1,95% | 4.108                                   | 2,08% | 13.122                                   | 6,63%  | 184.715                                        | 93,37% | 197.837                                  | 197.837 |
| E.A.E./CAPV                                    | 18.880                 | 2,61% | 13.824                                         | 1,91% | 16.382                                  | 2,26% | 49.086                                   | 6,78%  | 674.457                                        | 93,22% | 723.543                                  | 723.543 |

### A.1.a)- Lurralde-eredua. Lurzoruaren kalifikazioa.



#### Lurralde-ereduari / lurzoruaren kalifikazioari buruzko gogoetak.

Debagoieneko eremu funtzionalean, kalifikatutako lurzoruaren proportzioa (% 4,03) Gipuzkoako batezbestekoa (% 6,63), EAeko batezbestekoa (% 6,78) eta Arabakoa (% 5,19) baino askoz apalagoa da. Arrasate da kalifikatutako lurzoruaren proportziorik handiena duen udalerria; izan ere, eremu funtzionaleko (hiru aldiz) eta EAeko (bi aldiz) batezbestekoen oso gainetik baitago.


A.1.b)- Lurralde-eredua. Landa-lurzorua-urbanizaezina

| UDALPLAN 2019                                 | 1(d) 1              |      | 1(d) 2              |       | 1(d) 3              |      | 1(d) 4   |       | 1(d) 5          |      | 1(d) 6                 |       | 1(d) 7                            |      | 1(d)                 |       |
|-----------------------------------------------|---------------------|------|---------------------|-------|---------------------|------|----------|-------|-----------------|------|------------------------|-------|-----------------------------------|------|----------------------|-------|
|                                               | ha                  | %    | ha                  | %     | ha                  | %    | ha       | %     | ha              | %    | ha                     | %     | ha                                | %    | ha                   | %     |
| ESPARBUA                                      | Gune irekian S.O.   |      | Babes Berezia       |       | Ingurune Hobekuntza |      | Basoa    |       | Mendi Larreak   |      | Nekazaritza eta        |       | Gainazaleko Uren Babesa           |      | Lurrun Urbanizaezina |       |
| ÁMBITO TERRITORIAL                            | S.O. Espazio Libres |      | Especial protección |       | Mejora Ambiental    |      | Forestal |       | Pastos Montanos |      | Agroganadera y Campaña |       | Protección de Aguas Superficiales |      | Suelo no Urbanizable |       |
| UDALERRIAK/MUNICIPIOS                         |                     |      |                     |       |                     |      |          |       |                 |      |                        |       |                                   |      |                      |       |
| Aramalo                                       | 19                  | 0,24 | 2.270               | 28,79 | 0                   | 0,00 | 3.488    | 44,26 | 0               | 0,00 | 1.341                  | 17,01 | 683                               | 8,67 | 7.801                | 98,98 |
| Antzuola                                      | 2                   | 0,06 | 473                 | 16,95 | 0                   | 0,01 | 1.610    | 57,69 | 0               | 0,00 | 601                    | 21,54 | 55                                | 1,98 | 2.741                | 98,22 |
| Aretxabaleta                                  | 5                   | 0,20 | 771                 | 28,63 | 0                   | 0,00 | 995      | 36,95 | 0               | 0,00 | 575                    | 21,34 | 234                               | 8,68 | 2.581                | 95,80 |
| Elgeta                                        | 1                   | 0,07 | 76                  | 4,33  | 4                   | 0,23 | 1.230    | 70,19 | 0               | 0,00 | 363                    | 20,70 | 30                                | 1,74 | 1.704                | 97,26 |
| Eskoriatza                                    | 10                  | 0,24 | 627                 | 15,54 | 0                   | 0,00 | 1.020    | 25,29 | 0               | 0,00 | 2.198                  | 54,51 | 65                                | 1,61 | 3.919                | 97,19 |
| Arrasate/Mondragón                            | 30                  | 0,91 | 693                 | 23,06 | 27                  | 0,82 | 1.528    | 46,42 | 0               | 0,00 | 444                    | 13,49 | 121                               | 3,67 | 2.842                | 86,37 |
| Oñati                                         | 19                  | 0,18 | 2.738               | 25,46 | 0                   | 0,00 | 2.409    | 22,40 | 96              | 0,89 | 4.867                  | 45,26 | 249                               | 2,32 | 10.379               | 96,51 |
| Leintz-Gatzaga                                | 5                   | 0,37 | 960                 | 65,33 | 0                   | 0,00 | 251      | 17,05 | 0               | 0,00 | 230                    | 15,64 | 15                                | 1,03 | 1.461                | 99,41 |
| Bergara                                       | 19                  | 0,25 | 636                 | 8,41  | 5                   | 0,07 | 4.869    | 64,37 | 0               | 0,00 | 1.396                  | 18,46 | 174                               | 2,30 | 7.099                | 93,86 |
| EREMU FUNTZIONALAK - ÁREAS FUNCIONALES        |                     |      |                     |       |                     |      |          |       |                 |      |                        |       |                                   |      |                      |       |
| Debagoiena                                    | 110                 | 0,26 | 9.243               | 21,89 | 37                  | 0,09 | 17.399   | 41,20 | 96              | 0,23 | 12.015                 | 28,45 | 1.627                             | 3,85 | 40.527               | 95,97 |
| LURRALDE HISTORIKOAK - TERRITORIOS HISTÓRICOS |                     |      |                     |       |                     |      |          |       |                 |      |                        |       |                                   |      |                      |       |
| ÁLAVA/ARABA                                   | 1.088               | 0,36 | 72.743              | 23,91 | 5.426               | 1,78 | 91.094   | 29,95 | 5.032           | 1,65 | 92.328                 | 30,35 | 20.694                            | 6,80 | 288.405              | 94,81 |
| BIZKAIA                                       | 2.514               | 1,13 | 42.640              | 19,25 | 5.510               | 2,49 | 60.807   | 27,45 | 520             | 0,23 | 76.869                 | 34,70 | 12.478                            | 5,63 | 201.338              | 90,89 |
| GIPUZKOA                                      | 3.073               | 1,55 | 48.049              | 24,29 | 7.196               | 3,64 | 64.320   | 32,51 | 1.888           | 0,95 | 52.901                 | 26,74 | 7.289                             | 3,68 | 184.715              | 93,37 |
| E.A.E./CAPV                                   | 6.675               | 0,92 | 163.432             | 22,59 | 18.132              | 2,51 | 216.221  | 29,88 | 7.440           | 1,03 | 222.098                | 30,70 | 40.460                            | 5,59 | 674.457              | 93,22 |

A.2.- Biztanleria-dentsitatea (orokorra eta hirikoa).

| UDALPLAN 2019                                        | BIZTANLERIA / POBLACION         |                                   |                                     | DENTSITATEAK / DENSIDADES                              |                                                                                 |                                                                                               |
|------------------------------------------------------|---------------------------------|-----------------------------------|-------------------------------------|--------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                                      | Guztira<br>Total<br>Biz. - Hab. | Gizonak<br>Hombres<br>Biz. - Hab. | Emakumeak<br>Mujeres<br>Biz. - Hab. | Azalera guztira<br>Superficie Total<br>Km <sup>2</sup> | 2 a<br>Dentsitatea /<br>Densidad<br>Biz./km <sup>2</sup> - Hab./km <sup>2</sup> | 2 b<br>Hiritar dentsitatea /<br>Densidad urbana<br>Biz./km <sup>2</sup> -Hab./km <sup>2</sup> |
| <b>ESPARRUA</b>                                      |                                 |                                   |                                     |                                                        |                                                                                 |                                                                                               |
| <b>ÁMBITO TERRITORIAL</b>                            |                                 |                                   |                                     |                                                        |                                                                                 |                                                                                               |
| <b>UDALERRIAK / MUNICIPIOS</b>                       |                                 |                                   |                                     |                                                        |                                                                                 |                                                                                               |
| Aramaio                                              | 1.521                           | 790                               | 731                                 | 73,08                                                  | 19,30                                                                           | 1.885,69                                                                                      |
| Antzuola                                             | 2.219                           | 1.107                             | 1.112                               | 27,72                                                  | 79,51                                                                           | 4.478,30                                                                                      |
| Aretxabaleta                                         | 6.964                           | 3.519                             | 3.445                               | 26,93                                                  | 258,50                                                                          | 6.156,84                                                                                      |
| Elgeta                                               | 1.140                           | 595                               | 545                                 | 17,07                                                  | 65,07                                                                           | 2.378,96                                                                                      |
| Eskoriatza                                           | 4.089                           | 2.065                             | 2.024                               | 40,25                                                  | 101,41                                                                          | 3.612,83                                                                                      |
| Arrasate/Mondragón                                   | 22.124                          | 10.886                            | 11.238                              | 32,89                                                  | 672,26                                                                          | 4.932,67                                                                                      |
| Oñati                                                | 11.308                          | 5.581                             | 5.727                               | 107,57                                                 | 105,15                                                                          | 3.011,69                                                                                      |
| Leintz-Gatzaga                                       | 248                             | 136                               | 112                                 | 14,78                                                  | 16,87                                                                           | 2.883,72                                                                                      |
